

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2022ko maiatza / 327. zenbakia

www.oñati.eus  



Partaidetzazko aurrekontuak

Udal Aurrekontuetako 500.000 euro zertara bideratu herritarren artean erabakitzeko prozesua abian jarri du Udalak.



Izaro Elorza (EH Bildu), Onintza Andres (Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko teknikaria) eta Ainhoa Galdos (EAJ), Partaidetzazko Aurrekontuak 2023-2024 prozesuaren aurkezpenean

PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

Udal Aurrekontuetako **500.000 euro** zertara bideratu herritarren artean erabakitzekeo prozesua abian jarri du Udalak. Aurten hartuko dira erabakiak eta bi urteetan zehar (2023 eta 2024) gauzatuko dira proposamenak.

Partaidetzazko Aurrekontu prozesu berria jarriko du abian Udalak, herritarrek erabaki dezaten zertara bideratuko diren Udal Aurrekontuetako 500.000 euro. Aurten hartuko dira erabakiak, eta hurrengo bi urteetan zehar gauzatuko dira herritarrek bozketa bidez aukeratutako inbertsioak.

Udalbatza osatzen duten bi talde politikoek (EH Bildu eta EAJ) adostasuna du prozesuak, eta izaera loteslea izango du; hau da, prozesuaren amaieran herritarrek hartzen dituzten erabakiak aurrera eramateko konpromisoa hartu dute alderdiek.

Ildo horretan, herritarrez osatutako Berme

Prozesuak adostasun politikoa du eta bozketatik ateratzen den emaitza loteslea izango da

Aurten hartuko dira erabakiak eta hurrengo bi urteetan zehar burutuko dira proposamenak

Talde bat eratuko da, prozesuaren gardentasuna bermatzeko. Oñatin erroldatuta eta 18 urtetik gora duten 8-10 herritarrez osatuta egongo da taldea, eta prozesuaren etengabeko jarraipena eta balorazioa egingo dute. Zozketa bidez aukeratu dira Berme Taldeko kideak, sexua, adina eta bizitokia kontuan hartuz, herriko aniztasunaren isla izan dadin.

Udal ordezkariak animatu egin nahi dituzte herritarrak prozesuan parte hartzera, eta herriarentzat interesgarriak diren proposamenak aurkeztera. Askotariko proposamenak egin daitezke: kultura, mugikortasuna, ingurumena, berdintasuna, hirigintza, gazteria, kirola...

PROZESUAREN URRATSAK

1. PROPOSAMENAK EGIN

MAIATZAK 6 - 27

Lehen lana izango da herritarrek proposamenak egitea, eta horretarako hogeitau eguneko epea egongo da, maiatzaren 6tik 27ra, biak barne.

PROPOSAMENAK EGITEKO BIDEAK

- **Online:** udal webgunean (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurekontuak)
- **Postontzietan:** udal eraikin publikoetan eta bestelako ohiko tokietan (Udaletxea, Kultur Etxea, Kiroldegia, Gaztelekua, Gizarte Zerbitzuak, Pake Leku...) ipiniko diren kutxetan orria sartuz.

INFORMATZEKO ETA PARTE HARTZEKO BIDEAK

- **Webgunea:** udal webgunearen bidez (www.oñati.eus/eu/partaidetzazko-aurekontuak), formularioa betez
- **Informazio puntuak:** herriko hainbat puntutan informazioa eskuratzeko mahaiak jarriko dira, proposamenak jasotzeko epealdian.
- **Tailerra:** Maiatzaren 19an (18:00-19:30) Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta kalea, 18) egingo den tailer edo bilera irekian.

PROPOSAMENAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Udalaren eskumenekoa izan behar du
- Bi urtetan exekutatzeko modukoa izatea eta egiturazko gastu nabarmenik ez ekartzea
- Interes orokorrekoa izatea eta onura publikoa ekartzea
- Bideragarritasun teknikoa eta juridikoa gainditzea
- Gastua 200.000 €-tik gorakoa ez izatea
- Aurretik planifikatuta ez egotea, edo dagoeneko exekuzio fasean ez egotea
- Orokorregiak diren proposamenak eta propositiboak ez direnak baztertu egingo dira

2. PROPOSAMENAK LEHENETSI

MAIATZAK 30 - EKAINAK 17

Jasotako eta baldintzak betetzen dituzten proposamen guztien artean lehenetasuna zeintzuk duten erabakiko da herritarren artean.

- Bi edo hiru bilera egingo dira jasotako proposamen guztiak baloratzeko. Balorazio onena jasotzen duten proposamenek aurrera egingo dute, eta besteak prozesutik kanpo geratuko dira.

3. PROPOSAMENAK AZTERTU

EKAINAK 20 - IRAILAK 16

Herritarrek lehenetsitako proposamenak Udalaren eskuetara pasako dira. Udalaren eskumenekoa diren baloratu eta, baiezko kasuetan, bideragarritasun teknikoa eta aurreikuspen ekonomikoa egingo dute udal teknikariek.

4. BOZKATU ETA ERABAKI

URRIAK 5 - 25

Prozesuan aurrera egin duten proposamen guztien artean 500.000 euroak nora bideratu erabakiko dute herritarrek, bozketa bidez. Bide ezberdinak egingo dira horretarako.

Oharra: Fase bakoitzaren amaieran publiko egingo dira emaitzak.



» Maiatzaren 6tik 27ra arteko epea egongo da herritarren proposamenak aurkezteko

» Herritar bakoitzak nahi beste proposamen aurkeztu ahalko ditu

» Bi bide egongo dira proposamenak aurkezteko:
1. Online (udalaren webgunean);
2. Udal eraikin publikoetan ipiniko diren postontzietan orriak sartuz



Udal eraikin publikoetan (udaletxea, kultur etxea, kiroldegia, Pake Leku...)postontziak ipiniko dira herritarren proposamenak jasotzeko

INFORMAZIO TAILERRA

MAIATZAK 19
EUSKALDUN BERRIA
GELA, 18:00-19:30

Maiatzaren 19an, osteguna, herritar guztiei irekitako tailerra edo saio irekia egingo da Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta kaleko 18an), arratsaldeko 18:00etatik 19:30etara. Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuaren inguruko informazio osoa emango da bertan, eta zuzenean proposamenak egiteko aukera ere izango dute bertara hurbiltzen diren herritarrek.

**PARTAIDETZAZKO
AURREKONTUAK**
PRESUPUESTOS PARTICIPATIVOS
2023-2024



500.000€
Zureak ere badirelako

OÑATI
dabilen herria

BERME BATZORDEA

Udalak herritarrez osatutako Berme Batzorde bat eratu du Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuaren gardentasuna bermatzeko. Prozesuaren etengabeko jarraipena eta balorazioa egingo dute.

Zozketa bidez aukeratutako 8-10 herritarrek osatzen dute taldea, eta prozesuan zehar egiten diren ekintza guztien eta hartzen diren erabaki guztien gaineko informazioa izango dute. Herriko aniztasuna Berme Taldean islatuta egoteko ahalegina egingo du Udalak.

INFORMAZIO EGUNERATUA

Prozesuari buruzko informazio eguneratua jasotzeko batu Telegram/Whatsapp kanalera edo eman zure helbidea partaidetza@onati.eus helbidera. Informazio gehiago: 943780411 (126 luz.) / 688 679 460

Herritarrek aukeratutako 16 proposamen gauzatu ziren 2018/2020ko prozesuan

2018/2020 urteetan burutu zen Partaidetzazko Aurrekontuen lehen prozesua Oñatin. Bigarren fasean herritarrek 66 proposamen lehenetsi zituzten, eta udal teknikariek horien inguruko balorazio teknikoa egin ostean, aurrera egin zuten 38 proposamenen arteko bozketa egin zen. Guztira 1.150 herritarrek parte hartu zuten bozketan, eta boto gehien jasotako 16 proposamenak aukeratu ziren, 500.000 euroko aurrekontua agortu arte: Komun publikoak jartzea Olabarrietan eta Madalanan; Ugarkaldeko jolas parkea estaltzea, Bizikletentzako estalitako aparkalekuak ipintzea eskola inguruetan eta Azkoagainen, zebra-bideak argitzea, eta hondakinak gaika batzeko zakarrontziak jartzea, izan ziren aukera bozkatuenak.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com

PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA

TELEFONO FINKOA

+ **FIBRA**
300Mb

+ **25Gb**
MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

+ **3Gb**
2. MUGIKORRA
DEI MUGAGABEEKIN

39'90
€/HILEAN
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**

TELEBISTA BAT ZOZKATUKO DUGU

martxoan eta apirilean LIZKER dendan
alta gauzatzen duzenon artean



Zozketa maiatzaren 15ean egingo dugu.
Informazio gehiago gure sare sozialetan.

EXTRAK:

*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak

TV PREMIUM + **6** €/HILEAN

2. ETXEBIZITZA
FIBRA + FINKOA + **18'90** €/HILEAN
(Estatuko edozein herrian)

·MUGIKOR GEHIGARRIAK

5Gb + **3** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

8Gb + **5** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

25Gb + **8** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

·ESKAINZA BEREZIA!

25Gb + **1** €/HILEAN
DEI MUGAGABEEKIN

Lehenengo 5 hilabeteetan. Ondoren + 8 €
Premium baten mugak eratu behar izango dira.

*DENDAN KONTSULTATU ESKAINZA BEREZI GEHIAGO



Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)

MÁSMÓV!L



LIZKER
INFORMATIKA

2022ko aurrekontuak berrantolatu ditu Udalak

2021eko likidazioak **6,3** milioi euroko gerakina utzi du, eta horietatik **3,2** milioi gehitu zaizkio aurtengo aurrekontuari, proiektu berriei ekiteko eta lehendik datozen egitasmo batzuk indartzeko

2021eko Udal Aurrekontuaren likidazioak 6,3 milioi euroko diruzaintza gerakina utzi duela ikusita, 2022ko aurrekontuak berrantolatzea onartu zuen udalbatzak martxoaren 31eko osoko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin.

Berrantolaketaren inguruko zehaztapenak eman aurretik, 2021eko aurrekontuarne gauzatze maila %89koa izan dela azpimarratu zuen Xabier Igartuak, udaleko Ogasuna batzordeko buruak. "10 puntutan hobetu dugu 2000. urtetik gaur arte zegoen daturik onena (2017an %78koa izan zen), eta oso pozik gaude". Udal kontuhartzailearen txostenean 2000tik aurrerako datuak soilik azaltzen dira.

Pandemiaren eraginpean, ez ohiko urtea izan zen 2021a, baina, hala ere, urte hasierako ekonomia aurreikuspenak nabarmen hobetu zirela azaldu zuen Igartuak. "Foru Funtsaren eraginez, batez ere, diru sarrerak aurreikusitakoak baino altuagoak izan dira, eta horrek inbertsioetarako gaitasuna areagotu digu".

PROIEKTU BERRIAK

lazko aurrekontuaren likidazioak utzitako 6,3 milioi eurotatik 3,2 milioi aurtengo aurrekontuetan erabiltzea erabaki du gobernu taldeak. Alde batetik, 1,5 milioi txertaketa eta kreditu gehigarrien bidez bideratuko dira, lehendik datozen eta konprometituta dauden proiektuak sendotzera.

Horrez gain, 785.714 euro bideratuko dira maileguaren amortizazioa aurreratzera (2023ko kuota), eta beste 900 mila euro pasa izango dira proiektu berriei ekiteko, hala nola: Torreauzoko zubi berria (250m€), Arantzazuko ur-hornidura (200m€), udal brigadarentzako kamioia (200m€), Azkoagain (100m€)... Ikusi taula ondoko orrian.

ERRESERBAN

Horrenbestez, beste 3,1 milioi euro geratuko zaizkio Udalari erreserban. Horietatik bi milioi Musika Eskola eta Emakumeen Etxea proiektuetara bideratzeko asmoa du, eta milioi bat pasatxo Urrutxuko zigilatzearen bigarren fasera. Exekuzio proiektuak egin ahala zehaztuko dira partidak.



XABIER IGARTUA
UDALEKO OGASUNA
BATZORDEKO BURUA

«2021eko aurrekontuaren gauzatze maila %89koa izan da; 2000. urtetik zegoen daturik onena»

«Diruzaintza gerakinetik 1,5 milioi bideratuko ditugu lehendik datozen proiektuak indartzera eta 900m€ proiektu berrietara»

2021eko LIKIDAZIOA

2021eko Udal Aurrekontuaren likidazioaren berri eman zen martxoaren 31ko plenoan.

Udal kontuhartzailearen txostenaren arabera, Udalak 2021ean likidatutako diru sarrerak 18.705.330 eurokoak izan ziren, guztira, eta onartutako gastuak 20.301.944 eurokoak.

Aurrekontu arruntari errepertzen badiogu, sarrerak 18.010.605 eurokoak izan ziren, eta gastu arrunten eta amortizazioaren batura 15.073.811 eurokoa. Hau da, Udalak 2,9 milioi euroko aurrezki aurrunt garbiarekin itxi zuen iazko ekitaldia.

Zorpetze mailari dagokionez, 2021ean 794 mila euro bideratu ziren Udalaren kreditua amortizatzen eta, horrenbestez, 9,5 milioiko zor biziarekin itxi zen urtea. Gogoratu, 2019ko urte amaieran 11 milioiko mailegua eskatu zuela Udalak kiroldegiko, natur eskolako eta Araotzeko eskola ostatu bihurtzeko obrei aurre egiteko.

2021eko ekitaldian biztanleko 433,63 euroko inbertsio garbia egin zuen udalak, eta 6.324.258 euroko diruzaintza gerakinarekin itxi zen urtea.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

2022KO PROIEKTU BERRIAK

2021eko aurrekontuaren likidazioak utzitako 6,3 milioi euroko gerakinetik 900 mila euro pasa proiektu berriei ekiteko bideratuko ditu udal gobernu taldeak. Hona hemen nagusiak:

• **Torreazoko zubi berria (250.000€)**

Oinezkoen pasabide berria eraikiko da, gaur egungo zubian dagoen arazoari konponbidea emateko.

• **Udal brigadarentzako kamioia (215.000€)**

Udal brigadaren eguneroko lanetarako kamioi balioaniztuna erosteko.

• **Arantzazuko ur hornidura sarea (200.000€)**

Arantzazu auzoan edateko urarekin duten arazoari konponbidea eman asmoz, Gipuzkoako Urak-ekin eta auzoarekin adostutako proiektua gauzatzeko

• **Urgaineko hobekuntzak (100.000€)**

Urgain eskolako azpiegitura komunitarioak egokitzeko.

• **Azkoagain futbol zelaia (100.000€)**

Azkoagainen belar artifiziala berritu eta obra zibila egiteko, lehendik dagoen 360m€-ko kontu-sailari gehituko zaizkio.

• **Arazoko ostatuko urbanizazioa (70.000€)**

Arazoko ostatu berriaren aurrealdeko urbanizazio lanal egiteko.



Oinezkontzako pasabide berria eraikiko da Torreuzon



Azkoagaineko belar artifiziala berritu eta obra zibila egiteko beste 100m€ bideratuko dira

Bere proposamenak aintzat hartzea eskatu du EAJk

EAJren udal taldea abstenitu egin zen gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontuen berrantolaketa planaren bozketan. Jeltzaleen bozeramale Ainhoa Galdosek arrazoitu zuen, esanez, maileguaren itzulera urtebete aurreratu ordez, hobe zela 785 mila euro horiek beste behar batzuetara bideratzea; bestalde, EAJk aurkeztutako proposamene-tako batzuk aintzat hartu ez izana egotzi zion gobernu taldeari.

Ildo horretan, EAJk oniritzia eman zien Torreazoko zubia eraiki eta Arantzazuko edateko uraren arazoari konponbidea emateko sortutako diru partidei.

"2020ko aurrekontuen emendakinetan eskatu genuen Torreazoko bidegorriari konponbidea ematea, eta landa auzoetako inbertsioen diru saila 174.000 eurotan handitzea", esan zuen Galdosek. Hala ere, jeltzaleek faltan bota zuten Zubillagako trenbide zaharreko zubia zabalteko diru partida bat.

Gobernu taldearen izenean lgartuak erantzun zuen, esanez, beste auzo batzuetako proiektuak ere badaudela mahai gainean eta, edozein modutan, diruzaintza gerakinarekin egingo diren proiektuen %55 (maileguaren ordainketa kenduta) landa auzoetara bideratuta daudela.



AINHOA GALDOS
EAJren BOZERAMALEA

«Maileguaren itzulera urtebete aurreratu ordez, hobe litzateke diru hori beste behar batzuetara bideratzea»

Kirol ekipamenduei dagokienez, futbol zelaiaren gaiari behin betiko irtenbidea emateko 35.000m²-ko lursaila erostea (350m€) proposatu zuen EAJk. Gobernu taldeak erantzun zuen, aurrena proiektua landu beharra dagoela, kokapena zehazteko.

EAJren beste proposamene-tako bat izan zen landa-mendietako mugarririk digitalizatzea. "4 edo 5 urtetan gauzatu litzateke, urteko 120m€-ko aurrekontuarekin", azaldu zuen Galdosek. EH Bilduk erantzun zuen, Udalak Aldundiaren kontratazio zentralera atxikituta dagoela digitalizazio proiektu aukerak aztertu eta hurrengo urteetan gauzatzeko. ■

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

GAK
Garbitasunaren usaina

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

XIRRRIKA

Sexu-aholkularitza zerbitzua herritar guztientzat eta dohainik

Herritar guztiei zuzendutako **Xirrika** sexu-aholkularitza zerbitzua eskaintzen du Udalak. Pandemia garaian telematikoki erantzun behar izan diete herritarren kezka eta galderei, baina, dagoeneko, aurrez aurreko zerbitzua eskaintzen hasi dira berriz ere Bidebarrieta kaleko 14 zenbakian, ostiraletan (17:00-18:00). Aurrez txanda hartzea eskatzen da. Ateak zabal zabalik daudela esan digu zerbitzua kudeatzen duen Urtxintxa enpresako Iraide Gulinek.

Zertarako edo norentzat izan daiteke lagungarria **Xirrika** zerbitzua?

Sexualitatea era zabal batean ulertzen eta lantzen dugu eta, beraz, kontsultak ere askotarikoak izan daitezke: sexualitatea, harremanak, desira, identitatea, gorputza... Sexua edo sexualitatearen inguruan herritarrek izan dezaketen edozein kuriositate edo kezka argitzen laguntzeko gaude hemen.

Zer jasotzen du zerbitzura datorrenak? Zer eskaintzen diozue?

Zalantza edo kezka arin batekin baldin badator, agian momentuan bertan argituko dugu. Ikusten badugu problematika bat dagoela, elkarrekin adosten dugu prozesu bat zabaltzea eta hainbat saio programatzea, inongo konpromisorik gabe. Herritarrak erabakitzen du noraino jarraitu

edo iritsi nahi duen. Arazo biologiko edo medikuren bat baldin bada, bideratu egiten dugu.

Maiz esaten da euskaldunok gutxi hitz egiten dugula sexualitateaz, eta lotsa ematen digula halako zerbitzuetara etortzeak? Hala al da?

Guk Oñatiko Gaztelekuan ere ematen dugu zerbitzua, eta han oso garbi ikusten dugu gazteak modu oso naturalean etortzen zaizkigula galderak egitera, ulertzen dutelako sexualitatea beraien bizitzako parte dela.

Egia da, helduen artean gehiago kostatzen dela ezagutzen ez duzun norbaitekin zure intimitatea partekatzea, baina bagoaz aldatzen, poliki poliki.

Herri gutxitan dago era honetako zerbitzu bat, herritar guztiei zuzenduta, dohainik, eta, beraz, animatu egin nahi ditut herritarrak sexualitatearen inguruan



Sexu- eta emozio-hezkuntzan aditua da Iraide Gulin, Xirrika zerbitzuko arduraduna

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

dituzten galderak eta kezkek edo zalantzak argitzera, beldurak eta lotsak alde batera utzita. Garbi geratu behar da hemen konfidentziaztasun osoz artatzen ditugula kasu guztiak.

Ematen dioguna baino garrantzi handiagoa eman behar al diogu sexualitateari?

Nik uste dut badagoela oraindik sexualitatea bizitzeko tabu bat. Oso garrantzitsua da transparentea izatea, hau da, sentitzen duzuna eta esaten duzuna benetakoa izatea, baina gizartean badago halako presio moduko bat, eta ez da erraza izaten publikoki kaltebera azaltzea.

Zorionez, bagoaz tabu horiek gainditzen, apurka apurka. Orientazio sexualari dagokionez, adibidez, gaztetxoek askoz ere modu naturalagoan ikusten dute dibertsitatea, eta Oñatin ere argi ikusten da hori; ertzetan kokatzen diren identitateak zentroa hartzen ari dira Oñati baten, eta hori garrantzitsua da.

Gure etxeetan ere gutxi hitz egiten da sexualitateaz, eta guraso askok ez dute jakiten nola landu gai hori seme-alabekin. Horientzat ere oso lagungarria izan daiteke Xirrika zerbitzua, ezta?

Jakina. Gure seme-alabei sexu heziketa integral eta on bat emateak berebiziko garrantzia du, eta zenbat eta lehenago landu, are hobeto. Tamalez, guraso askok ez dute jakiten nola azaldu seme-alabei sexualitatearen inguruko zalantzak, eta normala den moduan, gazteek beste iturri batzuetara jotzen dute, besteak beste pornografiara, horrek dakarren guztiarekin.



Bidebarrieta kaleko 14an dago Xirrikaren bulegoa



Aurrez txanda hartu behar da
txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com

Horregatik, komenigarria da txiki txikitatik sexualitatearen gaia txertatzea modu naturalean, eta ildo horretan lagungarria gerta daiteke gure zerbitzua hainbat gurasorentzat, eta baita irakasleentzat ere.

Hainbat adituk ohartarazi dute gazteek gero eta pornografia gehiago kontsumitzen dutela, eta gero eta gazteagotan, gainera. Kezkagarria al da?

Bai, kezkatzeko modukoa da. Gaur egun, mugikorrari esker errazagoa zaie gazteei eduki horietara iristea, eta nola ez dagoen sexu heziketa integralik, askotan pornografiara jotzen dute beraien jakin minari irtenbidea emateko, eta horrek asko kezkutzen gaitu, pornografian agertzen diren praktikak kaltegarriak, toxikoak eta oso biolentoak direlako, eta, gero, biolentzia hori erreproduzitzeko arriskua

dagoelako.

Ildo horretan, datorren ostira-lean (maiatzak 6) pornografiaren inguruko tailer bat emango dugu Gaztelekuan (18:00), mutili zuzenduta, pornografiaren inguruko hainbat kontzeptu eta zalantza argitzeko, eta sexu harreman osasuntsuak nolakoak diren azaltzeko.

Herriko ikastetxeetan ere ari zarete lantzen sexualitatearen gaia, ezta?

Bai, Udalaren Hezkidetza programaren baitan LH-5 eta Batxi arteko ikasle guztiekin lantzen dugu sexualitatearen gaia. Helburua, azken batean, neska eta mutilak parekidetasunean hezte da, eta oso aberasgarria izaten ari da. Herriko neska-mutiko ia guztiek ezagutzen gaituzte, nolabaiteko erreferente bihurtu gara beraiarentzat, eta horri esker naturaltasun handiz hurbiltzen zaizkigu beraien kezkek azaltzera.

JABETZE ESKOLAKO DEIALDIAK


► HITZALDIA: 'LODIFOBIA'

Gorputz lodia, gorputz okerra, dioten estereotipo eta aurreiritziez jardungo du Mijo Lizarburuk. Loditasunaren auzia politikoa dela defendatuko du Lizarburuk, eta lodi-aktibismo indartsu baten beharraz ere hitz egingo du. **Maiatzak 13, ostirala, Kultur etxean, 18:00.**



► IKASTURTE AMAIERAKO JAIA

Egitaraua zehaztu gabe dago oraindik, baina maiatzaren 31n Jabetze Eskolaren 2021/2022 ikasturtearen amaierako jaia egingo da




COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS





Aleksandra eta bere semea Belen Zubiaren etxean daude Oñatira iritsi zirenetik

UKRAINATIK OÑATIRA 24 urteren ondoren

Hamalau urte zituela, uda pasatzera etorri zen Aleksandra Oñatira, eta orain gerratik ihesi itzuli da, Denys semearekin. Etxebizitza bat alokatu nahi du Oñatin, luzerako geratzeko asmoa baitu.

Kiev hirikoa da Aleksandra, eta martxoaren 26an iritsi zen Oñatira, Ukrainako gerra lehertu berritan. Errusiarren inbasioa benetakoa zela ikusirik, handik irtetea erabaki zuten, semearen segurtasuna bermatzeko, batez ere.

Lehendik ere ezagutzen zuen Euskal Herria Aleksandrak; 12-13 urte zituela Arrasaten igaro zituen bi uda, Jesus Mari Villarren etxean, eta hirugarren udaldi bat Oñatin. "Sare sozialen bidez Jesus Marirekin harremanetan jartzea lortu nuen, eta haren

bidez iritsi nintzen Oñatira" azaldu digu Aleksandrak. Orduz geroztik Belen Zubiaren etxean bizi da, honek bere etxea eskaini baitzuen GKE/ONG baten bidez ukrainar errefuxiatuak hartzeko.

Gustura eta oso eskertuta dago Aleksandra Belenekin, ostatu emateaz gain, beharrezko agiri guztiak tramitatzen lagundu baitio. Eta oso eskertuta dago, baita ere, Urgain eskolarekin, 8 urteko Denys semeari egin dioten harrera beroagatik. Oñatiko Gizarte Zerbitzuetan eta Osakidetzan ere zerbitzu azkarra

«Semea pozik dago hemen, eta nik etxetik egiten dut lan. Gure asmoa da denbora baterako Oñatin geratzea, eta asko eskertuko nuke oñatiarren batek etxebizitza alokatuko balit»

ALEKSANDRA KASIAN
Ukrainar errefuxiatua

eta goxoa jaso du, eta esker oneko hitzak ditu denentzat.

ETXEBIZITZA BILA

Belenen etxean hilabete pasa egon ostean, etxebizitza bat alokatu nahi luke Aleksandrak. "Bai, semea pozik dago hemen, nik etxetik egiten dut lana –farmazia-konpainia batean dihardu–, eta gure asmoa da denboraldi luze baterako hemen gelditzea, Ukrainako egoera normalizatu arte; Kiev inguruak minaz josita daude eta oso arriskutsua da haur batentzat. Horregatik eskertuko nuke oñatiarren batek etxebizitza alokatuko balit; logela bakarrekoa izanda ere nahikoa litzateke. Lanean ari naiz, eta alokairua ordaintzeko moduan nago". Urtebetez, gutxienez, Oñatin egongo direla uste du.

ASPALDIKO LAGUNAK

Hogeita lau urte igaro dira Oñatin egon zenetik, eta ez du gogoratzen zein etxetan egon zen, ezta orduan egingako lagunak ere, baina pozik elkartuko litzateke beraiekin.

Bere senarra eta gainerako senideak Ukrainan geratu dira. Kiev-etik alde egin zuten, herri seguruago batera, baina nahiago izan dute han gelditu. Zorionez, onik daude.

Gerra egoerari dagokionez, hurrengo egunak oso garrantzitsuak izango direla uste du Aleksandrak. "Maiatzaren 9an Garaipenaren Eguna ospatzen dute Errusian, egun oso handia da beraientzat, eta garaipenen bat erakutsi beharko dute".

Aleksandraren ustez Ukrainak ezin du inola ere onartu hego-ekialdeko lurraldeen burujabetza auzitan jarriko duen negoziazio mahairik, eta irtenbidea Ukrainaren garaipenarekin soilik etorriko dela uste du; "Euorpar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen babesarekin garaipena lor dezake Ukrainak". ■



Oñatik hartuko du Bilgune Feministaren 20. URTEURRENEKO TOPAGUNEA

Ekainaren 11-12an ospatuko da eta plazako pilotalekua izango da gune nagusia. Kontzertuak, mahai-inguruak eta askotariko tailerrak egingo dira bi egunetan.

Euskal Herriko txoko askotako feministen topagunea izango da Oñati ekainaren 11 eta 12an, bertan egingo baita Bilgune Feministaren 20. urteurreneko Topagune Feminista, '**20 urte paradisuak erretzen... ezta dardara gaitzala**' lelopean. Modu horretan gogorarazi nahi dute bi hamarkada daramatzatela paradisu kapitalista eta heteropatriarkalari maskara kentzen.

Plazako pilotalekua izango da gune nagusia, eta bertan emango diote hasiera bi eguneko jardunari larunbat goizean. Arratsaldean, askotariko mahai-inguru, tailer eta ekintzetan banatuko dira: sexu eta genero disidentziak izan duen ibilbideaz, edota zaintzaren potentzialitate politikoaz hausnartuko da, besteak beste. Sormenerako tartea ere izango da: musika maratoia, bertso saioa, sormen tailerra... Iluntzean ekitaldi nagusia egingo da eta, ondoren, urteurreneko abestia sortu duen **Ginger** Zarauzko taldearekin, **IRA**, **Chocolate Remix** eta **DJ Miaure**kin batera amaituko

dute gaua.

Igande goizean **Nomadak Gaittun** emakume sortzaile eta artisauen azoka egingo da. Aisialdirako tartea ere egongo da 'marianitada' batekin, eta ondoren herri bazkaria egingo dute, inguruko elikadura taldeekin elkarlanean, eta **Anariren** kontzertuak emango dio amaiera Topagune Feministari.

UDALAREN BABESA

Oñatiko udal gobernu taldeak eskerrak eman dizkio Bigune Feministari, Oñati aukeratu izanagatik ospakizun honetarako, eta babesa eskaini dio jardunaldia antolatzeko behar dituzten azpiegitura eta bitartekoak beraien esku jarriz. "Udal honek bere egunerokoan martxan dituen lan ildo ezberdinekin eta lortu nahi dituen helburuekin bat egiten du topaketak, eta halako ekitaldi batek ematen dion ikusgarritasunak gure jardunean laguntzen du" adierazi zuen Izaro Elorza alkateak, Bilgune Feministako kideekin batera emandako

prentsurrekoan. "Gure II. Berdintasun Planak jasotzen du, besteak beste, mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea eta egun daudenak babestea; hau da, berdintasunaren alde egiten duten elkarteei babesa ematea, baliabideak eskaintzea eta lankidetzarako esparruak irekita mantentzea", gaineratu zuen Elorzak.

AZPIEGITURAK ETA SARRERAK

Plazako frontoia izango da gune nagusia, baina herriko beste hainbat espazio ere erabiliko dituzte. Lo-lekua eta furgonetentzako parkinga ere egongo da.

Topagune Feministan parte hartzeko sarrerak online (labur.eus/TopaguneFeminista) eskuratu daitezke, eta baita Oñatiko Arrano tabernan ere 40€-tan (35€ kolektibo prekarioentzat). Furgo-parkinean plaza gordetzeko bonoa ere (5€) eskuratu ahalko da.

Jardunaldietan parte hartzeko sarrerak Arrano tabernan edo online (labur.eus/TopaguneFeminista) eskura daitezke

Informazio gehiago:
bilgunefeminista.eus





Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko kideak (Amaia Erostarbe –EAJ–, Ointza Andres –teknikaria –, Anik zubizarreta –EH Bildu– batzordeburua), eta Izaro Elorza alkatea ordenantza aurkezten

Herritarrak ardatz dituen gobernantza eredurako arau-oinarria

Herritarren parte-hartzea, lankidetzaren publiko-soziala eta gardentasun instituzionala arautzeko ordenantza onartu du Udalak, hasiera bateko izeraz. Maiatzaren 27ra arteko epea dago alegazioetarako.

Herritarren parte-hartzea, lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzen duen ordenantza onartu zuen udalbatzak, aho batez, martxoko osoko bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren berri eman ostean, 30 laneguneko epea ireki da (maiatzaren 27ra arte), alegazioak aurkezteko edota zuzenketak proposatzeko.

"Herritarren partaidetzarako araudi esparrua zehaztea, herritarren eskubide eta bermeak zabaltzea, organo iraunkorren izaera eta funtzionamendua gaurkotzea, partaidetzaren oinarritutako prozesuen kalitatea bermatzea, eta lankidetzaren publiko-sozialeko formulak zabaltzea eta sendotzea dira ordenantza honen helburu nagusiak", azaldu

«Guretzat urrats bat gehiago da parte-hartzeko politikak egonkortzeko eta indartzeko bidean»

Izaro Elorza
ALKATEA

zuen Izaro Elorza alkateak, komunikabideen aurreko agerraldian.

Lehenago ere egin izan dira parte-hartze eta lankidetzaren publiko-sozialeko prozesuak Udalaren eta herriko eragile ezberdinen artean, baina orain arte ez zegoen ekimen horiek arautuko zituen ordenantzarik, eta Udalak beharrezko ikusi du tokiko araudi

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Exebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

bat garatu eta onartzea. "Guretzat urrats bat gehiago da parte-hartze politikak egonkortzeko eta indartzeko bidean" adierazi zuen alkateak.

Ildo berean mintzatu zen Anik Zubizarreta, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioa batzordeko burua ere. "Hau da dokumentu bat, herritarrek jakiteko parte-hartze eskubidea zein kanalen bidez ahalbidetu daitekeen. Zein modu, bitarteko eta prozedura dauden politika publikoetan eragiteko. Azken batean, parte-hartzea erdigunean edukiko duen eta herritarren ahotsa presente izango duen gobernantza eredu bateranzko bidean aurrera egin nahi dugu ordenantza honen bidez".

PROZESU LUZEA ETA ABERATSA

Gogoratu, 2015ean erabaki zuela Udalak Partaidetza eta Garapen Komunitarioko departamentua sortzea, eta agintaldi haren amaieran (2019) hasi zen, hain zuzen, ordenantza hau eratzeko hausnarketa prozesua. "Bide luzea baina oso aberasgarria eta ikasketa prozesu garrantzitsua izan da" adierazi zuen Zubizarretak. "Parte-hartzeaz berba egiten dugunean zer ulertzen dugun, lankidetzako publiko-soziala zertarako egiten den, zergatik den inportantea, nola egingo dugun... Gogoeta prozesu sakona egin dugu, orain arteko ibilbidea kontuan hartuz, eta Oñatirako aplikagarria eta errealista izango den araudi bat sortzeko helburuarekin, beti ere".

Horregatik da hain luzea ordenantzaren lehen zatia, bertan egiten delako zio edo motiboen eta marko orokorraren azalpena; alegia zergatik eta zertarako egin den ordenantza hau. "Arudiak helburu zehatz batzuk ditu, jakina, herritarrek gai publikoetan parte hartzeko dituzten tresnak eta bideak zehaztea, baina sarrerakoan azaltzen den marko horrek ematen dio zentzua gainerako guztiori" azaldu zuen Zubizarretak.

Ordenantzaren lanketa eta

GENERO IKUSPUNTUA ARDATZ

Udalak onartu berri duen parte hartze ordenantzak badu azpimarratzea merezi duen beste ezaugarri bat, eta zera da: genero ikuspuntua presente egon dela lanketa prozesu osoan. "Oso garbi izan dugu hori hasieratik", adierazi du Anik Zubizarretak. "Ordenantza honek herritar orori ematen dio aukera gai publikoetan parte hartzeko, baina badakigu aukera edo eskubide hori garatu edo egikaritzeko orduan desorekak ematen direla, eta zailtasun edo traba berezietan egin behar izaten diela aurre zenbaitek. Horregatik, ezinbestekoa zen genero ikuspuntua txertatzea ordenantzaren, eta horrek ere lanketa sakona eskatu digu".

Generoaz gain, parte-hartzea baldintzatu dezaketen beste faktore edo elementu batzuk ere hartu dira kontuan ordenantzaren garapenean, hala nola: jatorri aniztasuna, klasea, desgaitasuna... Helburua, azken batean, herritar guztien aukera berdintasuna bermatzea da.

HERRI EKIMENAK, HERRI KONTSULTAK ETA BESTE

99 orrialde ditu herritarren parte-hartzea, lankidetzako publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udalbatzak hasiera bateko izaeraz onartu duen ordenantzak. Lehenengo zatian, ordenantza hau egitearen zio edo arrazoiak azaltzen dira, eta bertan jasotzen da udal honek demokratizazioan sakontzearen alde duen konpromisoa.

Hurrengo atalean, garapen komunitarioa (elkarteen sarea eta lankidetzako publiko-soziala) sustatu eta indartzeko udalak jorratuko dituen bideak eta tresnak aipatzen dira.

Herritarren partaidetza antolatze bideak zehazten dira hurrengo atalean. Herritarren eskubideak zein diren eta, herri-ekimenak edo udal mailako kontsultak antolatze bideak zehazten dira bertan: zenbat sinadura aurkeztu beharko den kasu bakoitzean, eta zeinek parte hartu ahal izango duen, besteak beste.

Azkenengo atalean udalaren gardentasuna bermatzeko mekanismoak jasotzen dira, herritarren intereseko informazio publiko guztia eguneratua eta modu ulergarri publiko egiteko egiturak finkatuz.

idazketa prozesuan, erreferentziatzeko beste herri eta hiri batzuetako (Donostia, Iruñea,artzelona, Madril...) ordenantzak ere izan dituzte kontuan. Herritarren iritzi eta ikuspuntuak jasotzeko hiru saio ere egin ziren, prozesuaren hasieran, batez ere, eta urratsak eman ahala, kontrasterako hainbat bilera egin dira maila teknikoan (udaletzeko teknikari eta langileekin) eta maila

«Hau da dokumentu bat herritarrek jakin dezaten parte-hartze eskubidea zein kanalen bidez ahalbidetu daitekeen»

Anik Zubizarreta
Partaidetza batzordeburua

DOKUMENTUA JENDEAGIRIAN

Apirilaren 12an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Oñatiko udalbatzak hasiera bateko izaeraz onartutako ordenantza, eta 30 laneguneko epea ireki zen (maiatzaren 27ra arte), dokumentua aztertu eta alegazioak aurkeztu edota zuzenketak proposatzeko. Udalaren webgunean (www.oñati.eus/udala/ordenantzak) irakur daiteke dokumentua bere osotasunean. Ondoko QRak ere bertara eramanen du.



politikoan (udalbatza osatzen duen bi talde politikoeekin, ahalik eta adostasun maila handiena lortzearen).

Bien bitartean, eta kontuan hartuta dokumentua nahikoa mardula dela, Udala esku-orri bat prestatzen ari da, ordenantzaren inguruko informazioa ahalik eta modu ulergarri eta erakargarriean herritarrei helarazteko. ■

San Lorentzoko 50-51-52 eta 56-57 etxe-blokeen inguruko urbanizazioa berritzeko lanen esleipen prozesua abiaraztea erabaki du Udalak.

A2B Arquitectos enpresak idatzitako proiektuaren arabera egingo dira lanak, eta ondoko planoak erakusten duen moduan, goian aipatutako atarien inguruko oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urria duten pertsonentzako aparkalekuak egokitu dituzte, irisgarritasun arauetara egokituz, edota araua guztiz bete ezin den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko asmoz. Auzoko perimetro edo eraztuneko zati bat ere berrituko da, irudian ikusten den moduan.

Espaloiak zabaldu, zoladura berritu, pendizak arindu, oinezkoen ibilbideetan dauden desnibelak eta etenak ezabatu, eta pendiza handiegia den lekuetan baranda edo eskudelak ipintzea izango dira, besteak beste, egingo diren lanak.

Proiektuaren aurrekontua 347.063 €-koa da (BEZ kanpo). Lan hauek egingo direla aprobetxatuz, ur zikinen saneamendu sarea ere berrituko dute, 54.220 €-ko aurrekontuarekin (BEZ kanpo), Gipuzkoako Urak S.A. enpresak landutako dokumentazioan jasotakoaren arabera.

Deialdia Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean hogeitau eguneko epea egongo da nahi duenak proposamenak aurkez ditzan. Kontratuaren iraupena 25 astekoa izango da.



San Lorentzoko 10. areako urbanizazio lanak lizitaziora

Auzoko 50-51-52 eta 56-57 zenbakien arteko eremua berrituko da. Lanek 347.063 euroko aurrekontua dute



Bi arrapala Otadui zuhaitzian, irisgarritasuna bermatzeko

Ondoko argazkietan ikusten den moduan, udal brigadako langileek heldulekudun bi arrapala egokitu dituzte Otadui zuhaitzian, inguru horretako irisgarritasuna bermatzeko, bai arkupeko bebarruetan bizi diren herritarrena, eta baita pasioan gora eta behera ibiltzen diren herritarrena ere, espaloian jarraitu ahal izango dutelako, errepidera irten beharrik izan gabe.

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Diruz lagundutako erosketa bonuen kanpaina berria jarri du abian Udalak

Udalak 15.000 euro emango ditu bonotan

Erosketa bonuen bidezko bi deskontu kanpaina egingo ditu aurten Udalak: udaberriaren bat, eta udazkenean bestea, bakoitza 15.000 euroko aurrekontuarekin.

Udaberriko kanpaina oraintxe egingo da, maiatzean. Herritarrek **maiatzaren 4tik 18ra** arteko epea izango dute erosketa bonuak eskuratzeko. Ohi bezala, bi modu edo bide egongo dira horretarako, online eta offline. Bonuak online erosi nahi dituenak **oñati.bonoak.eus** web aplikazioan alta eman beharko da, eta bertan aukeratu erosketa egingo den saltokia eta bonuaren zenbatekoa.

Bestela, erosketa egin nahi den saltokian bertan ere eskuratu ahal izango dira bonuak. Erosi nahi den produktua edo zerbitzua eskuratu eta saltzailearen bitartez aukeratu beharko da bonuaren zenbatekoa **Oñati.bonua.eus** aplikazioan.

%20ko DESKONTUA

Pertsona bakoitzak gehienez 50€ eskuratu ahal izango ditu bonuetan, eta erositako bonuei %20ko deskontua aplikatuko zaio; hau da, 50€-ko bonu batek 40€-ko kostua izango du. Bonuak kontsumitzeko epea abenduaren 2ra arte luzatuko da, bai udaberriko eta baita udazkeneko kanpainan ere.

Tokiko komertzio, ostatu eta zerbitzuetan kontsumitzearen garrantziaz sentsibilizatzea, eta kontsumo arduratsua sustatzea da kanpaina hauen helburua. Bi kanpainak kontuan hartuz, guztira 150.000 €-ko kontsumoa sustatu nahi da.

► **Maiatzaren 4tik 18ra bitartean erosi ahal izango dira bonuak**

► **Pertsona bakoitzak 50 € eskuratu ahal izango ditu gehienez bonuetan**

► **Oñati.bonoak.eus web aplikazioan edo kanpainari atxikitako saltokietan eskuratu ahal izango dira bonuak**

► **16 urtetik gorako herritarrek soilik eskuratu ahal izango dituzte erosketa bonuak**

Etxebizitzak alokatzeko gazteentzako dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Etxebizitzak alokatzeko gazteei zuzendutako 2022ko dirulaguntza deialdia egitea onartu zuen udalbatzak martxoaren 31ko osoko bilkuran.

18 eta 35 urte arteko (biak barne) gazteei zuzenduta dago deialdia, eta dirulaguntzaren xedea da Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten edo indarrean dagoen urtearen urriaren 17a baino lehen alokairu erregimenean kontratu bat sinatzeko konpromisoa hartuko duten gazteei etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzea.

Dirulaguntzaren zenbatekoa oinarrietan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak gutxienez 12 hilabetetan izandako alokairu gastuan kontuan hartuta eta, beti ere, baldintza horiek denbora tarte horretan mantentzen badira. (Ikusi oinarriak QR kodean).

ESKAERA EPEA

Eskaerak aurkezteko epea urriaren 17ra arte egongo da zabalik. Aurtengo aurrekontuetan 65.335 euroko kontu-saila bideratu du Udalak laguntza hauetara. Iaz 47 gaztek (28 neska eta 19 mutil) jaso zuten laguntza.

informazioa eta eskaera orriak



ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

NI moda

MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

UDALAREN SOZIEKONOMIA SAILEKO DIRULAGUNTZAK BERRIKUNTZEKIN DATOZ

ENPRESA BERRIAK sustatzeko laguntzak

Merkataritza **lokalek alokairua** finantzatzeko dirulaguntza lerro berria sortu da

Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak eta 2022ko deialdia egitea onartu zuen udalbatzak martxoaren 31ko osoko bilkuran. Aurten, gainera, berrikuntzekin dator deialdia (gorriz). Hona hemen, laburbilduta, punturik garrantzitsuenak.

ONURADUNAK

Oñatin enpresa jarduera berri bat sortzen duten edo lehendik abian dagoen jarduera bati, eskualdaketa bidez, jarraipena ematen dioten pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

BALDINTZAK

2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartean alta emandako jarduerak izatea. Sortzen den enpresa berria Oñatin kokatuta egotea, eta 10 langile baino gutxiagokoa izatea.

DIRULAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOAK

a) Sorturiko lanpostuengatiko laguntza:

- Sortutako lanpostu bakoitzeko **1.500 €**
- Lehen sektoreko jarduera bada, **3.000 €** lanpostuko

• **Sustatzailea emakumea denean, sorturiko lanpostuari dagokion dirulaguntza %30ean gehituko da**

Baldintza: Sustatzailea Oñatin erroldatuta egotea, 6 hilabeteko antzinasunarekin, gutxienez.

b) **Merkataritza sektoreko negozio-lokalek alokairuentzako dirulaguntza**

- Lehenengo urteko alokairu gastuak (**2.500 €**, gehienez).

Txikikazko edo hiri-merkatariak jarduerari lotutako zerbitzuak izan behar dira. Ostalaritzako jarduerak (ostatuak, tabernak, jatetxeak, kafetegiak...) laguntza mota honetatik kanpo geratuko dira. Lokala Oñatiko hirigunean kokatuta egon behar da.

EPEAK

Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko, udaletxeko HAZ bulegoan, Internet bidez (www.onati.eu) edo posta arruntez. Informazio gehiago udaleko Sozioekonomia sailean (943003198 / enplegu@onati.eu).

Pertsona langabetuak kontratatzeko dirulaguntzak

Langabetuak kontratatzen dituzten 50 langiletik beherako herriko enpresei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratitzen den pertsonak Oñatin erroldatuta egon behar du (gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin). Lan kontratuak mugagabeak edo, gutxienez, 6 hilabeteko iraupena duten aldi baterakoak izan behar dira. Gutxienez %50eko lanaldikoak. Kontratuen hasiera data 2021eko uztailaren 1a eta 2022ko ekainaren 30a bitartean izan behar da.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

a) Kontratu motaren arabera laguntzak: • **kontratu mugagabeak eta lanaldi osoan: 1.300€**; • aldi baterako kontratuak 6 hilabeteko iraupenarekin, lanaldi osoan: **1.000€**; • kontratatutako pertsona emakumezkoa bada, **300 €**-ko gehikuntza.

Denbora partzialeko kontratuen kasuan, lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da dirulaguntza.

b) **%30eko gehikuntza**, kolektiboa hauetakoren bateko pertsonak kontratatzen diren kasuetan: Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE / RGI) hartzaileak; 35 urtetik beherako pertsonak; 55 urtetik gorako pertsonak; epe luzerako langabeak

Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Informazio gehiago Sozioekonomia sailean (943003198 / enplegu@onati.eu).

Gizarteratze eta laneratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak

Gizarte bazterkeria arriskuan edo desabantaila egoeran dauden eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten **tamaina guztieako enpresei** zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratitzen den pertsonak Oñatin erroldatuta egoteaz gain, gizarteratze eta laneratze prozesuan murgilduta, edo prozesu hori amaitu berritan egon behar du, eta laneratze enpresa baten bidez bideratutako kontratua izan behar da..

Kontratu mugagabeak edo, gutxienez, **2 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak** izan behar dira (%50eko lanaldia, gutxienez).

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Kontratu mugagabeak eta 6 hilabeteko edo gehiagoko aldi baterakoak, lanaldi osoak, badira: **3.000€**; **2 eta 6 hilabete arteko aldi baterako kontratuak badira, lanaldi osoan: 1.500€**. Denbora partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.

Ondorengo kasuetan **%30eko gehikuntza** aplikatuko da: kontratatutako pertsona **emakumea bada**; 55 urtetik gorakoa bada.

Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Informazio gehiago Sozioekonomia sailean (943003198 / enplegu@onati.eu).

Selma Huxley izena jarri diote Artxibo Historikoko ikerketa gelari



Aurten 50 urte betetzen dira Selma Huxley Barkham (Londres, 1927 - Chichester, 2020) ikerlaria Euskal Herrira iritsi zela, eta Gipuzkoako artxiboetako zuzendaritzak harekiko duen zorra aitortuz, Selma Huxley izena eman dio Oñatin egoitza duen Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoko ikerketa gelari. Gogoratu, Huxley hogeitaz bizi izan zela Oñatin, Protokoloen Artxiboa arakatzeko bitartean, eta ekarpen handia egin ziola Euskal Herriko eta Kanadako itsas historiari.

Gogoratu, Oñatiko Udalak ere, Berdintasun sailaren bitartez, *Selma Huxley Barkham* izena daraman ikerketa beka sortu zuela 2016an, Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak balioan jartzeko. Aurten hirugarren aldiz eman du beka Udalak.

UDALAREN DEIALDIAK

Araozko ostatuaren ustiaketa lizitaziora ateratu du Udalak



Bost urterako kontratua sinatuko da, beste bost urtez luzatu ahal izango dena

Araozko ostatuaren ustiaketa, jatetxea eta lau apartamentu turistikoaren ustiaketa lizitaziora ateratzea erabaki du Udalak. Lote bakar batean aterako da dena, eta zerbitzu-emakida bost urterako izango da, beste bost urtez luzatu ahal izango dena. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 25.000 €-tan (lehenengo urtea) finkatu da.

Kontratuaren esleipena erabakitzeko orduan irizpide hauek hartuko dira kontuan: oinarritzko aurrekontuarekiko hobekuntzak (31 puntu, gehienez), ostalaritza sektoreko esperientzia (20 puntu) eta jarduketara plana (49 puntu). Azken honen barruan azaldu beharko dira, besteak beste: jarduera bakoitzeko berezoei eskainiko zaien zerbitzua (15 p.); negozio eredu eta diru-sarrerak lortzeko modua (15p.); marketin plana (5p.); garbiketa- eta mantentze-plana (5p.); itunen eta harremanen sarea (5p.). Ostalaritza jarduera garatzeko eta bizilagunekiko bizikidetzara sustatzeko, auzoarekiko truke- eta bizikidetzara ekintzen deskribapena egingo da. Era berean, ostalaritza-jarduera garatzeko, lankidetzara akordioak proposatuko dira ostalaritzako beste enpresa batzuekin edo inguruko turismo erakundeekin.

Ekainaren 1era arteko epea dago proposamenak aurkezteko. Deialdiaren oinarriak ondoko QR-an.



Azkoagaingo belar artifiziala berritzeko lanak lizitaziora

Azkoagaingo belar artifiziala berritzeko lanak esleitzeko prozesua abiarazi du Udalak 375.700 €-ko (BEZ gabe) aurrekontuarekin. Bi lotetan banatuko da: obra zibila (190.841€) eta belar artifiziala (184.858€). Deialdia argitaratu ondoren 20 lan eguneko epea irekiko da proposamenak aurkezteko.

Lezesarri auzorako oinezkoentzako bidea egokitzeko obrak lizitaziora

Azkoagaitik Urrintxo pareraino oinezkoentzako ibilbidea egokitzeko obra esleitzeko prozesua abiarazi du Udalak 201.411 €-ko (BEZ gabe) aurrekontuarekin. Deialdia argitaratu ondoren 20 lan eguneko epea irekiko da proposamenak aurkezteko. Hiru hilabeteko epea aurreikusten da lanak egiteko.

Berdegunek eta lorategiak mantentzeko zerbitzua kontratatzeko deialdia

Herriko berdeguneak, parkeak eta lorategiak mantentzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko zerbitzua kontratatzeko prozesua abiarazi du Udalak. Kontratua urtebeterako izango da, baina lau urtera arte luzatu ahal izango da. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (1go urtea) 309.702 €-tan (BEZ barne) finkatu da.

Gararapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako dirulaguntza deialdia

Lau laguntza lerro biltzen ditu Udalaren deialdiak: **a)** Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzara proiektu estrategikoak garatzeko laguntzak (79.000€). Eskiera epea: maiatzak 27; **b)** Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzarako ekintza edo ekimen puntualetarako laguntzak (30.000€). Epea: maiatzak 27; **c)** Oñatiko udalerrian eraldaketa sozialerako heziketa eta setsibilizazio jardueretarako (3.000€). Epea: abuztuak 31; **d)** Larrialdi eta ekintza humanitarioko proiektuak finantzatzeko (18.000€). Epea: azaroak 1.

Asier Guridiren egoera larriagotzen ari da

35. eguna bete du gose greban, nortasun juridikoa aldarrikatzeko

Martxoaren 29an ekin zion Asier Guridi Zaloña oñatiarrak gose grebari Caracasen (Venezuela), Espainiako Kontsulatu Orokorren aurrean. Kontsulatu horrek 2020an ukatu zion pasaportearedo Venezuelako Komisio Nazionalak abenduan aitortu zion errefuxiatu izaera azalduko duen zedula eman diezaioten eskatzen du. Nortasun juridikorik gabe, heriotza zibilera kondenatuta dagoela salatu du, bai bera eta bai Oñatin bizi den Iban semea ere, oinarrizko eskubide ugari ukatzen zaizkielarik. Bere osasun egoera asko okertu da azken egunotan; zorabioak ditu, goragale gogorak eta tentsio arazoak, baina borrokarekin jarraitzeko asmoa berretsi du oñatiarrak. Espainiak bere aurka daraman mendekuzko jarrera salatu du, eta elkartasunerako deia luzatu.



On Jabier Etxeberria omenduko dute domekan

lazko abenduan 91 urte bete zituen On Jabier Etxeberria Arrese apaiza omenduko dute igandean (maiatzak 8) eguerdiko 12:00etako meza nagusiaren ostean.

Hogeita bi urterekin apeztu zen Etxeberria eta gerora Bedoña, Arrasate, Ibarra, Tolosa, Amara, (Donostia), Zumarraga eta Oñatiko parroketan jardun izan du, ardura ezberdinekin. Elizbarrutiko Hautzaroko Idazkari-zakozuzendaria ere izan zen.

Egun, Donostiako seminarioko egoitzan bizi da eta domekan Oñatiko kristau komunitatearen esker ona jasoko du.

Osasun eskubidea aldarrikatu dute Autlan-eko langileak



Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen apirilaren 28a, eta horren harira elkarretaratzea burutu zen Autlan EMD enpresaren aurrealdean, LAB sindikatuak deituta, bertako langileen osasuna bermatuko duten neurriak exijitzeko. Sindikatuak igorri duen idatzian azaltzen denez, iazko irailean frogatuta geratu zen enpresako zonalde ia guztietan manganoso eta laino azidoen kontzentrazioak daudela (bost langileri arnasbideetako patologien lan-jatorria aitortu zaie), baina, hala ere, enpresak ez omen du oraindik adierazi zein neurri prebentibo hartuko dituen. Horren aurrean, arrisku-maila murrizteko neurri kolektiboak hartzea, iraganean babes gabe jardun duten langile guztiei proba medikuak egitea, eta gaixo dauden langileentzako irteera pizgarriak eskatu dituzte, besteak beste.

Junta berria, asmo berriak



Zuzendaritza taldea berritu dute Pake Leku elkarteak, eta esku artean dituen proiektu eta egitasmo berriak eman ditu jakitera.

'PAKE LEKU SARIA, URTEKO JUBILATUARI'

'Pake Leku Saria' emango du aurrerantzean erretiratuen elkarteak. Herrigintzan eta gai sozialetan nabarmendu den pertsona jubilatutako bat saritzea da helburua, bere lana, ibilbidea, balore pertsonalak eta herriari egindako ekarpena aitortzeko. Hautagaiak Pake Lekuko edozein bazkidek aurkeztu ahal izango ditu urtean zehar, bere merituak azalduz, eta Pake Lekuko juntak aukeratu du hautagai guztien artean egokiena. Urteko azken larunbatean emango da saria: oroigarria eta bi lagunentzako afaria Pake Lekun.

Bestalde, Oñati eta Euskal Herria ezagutzeko irteera programarekin jarraitzeko asmoa dute Pake Leku elkarteak, eta IMSERSOK turismoa eta termalismoa egiteko eskaintzen dituen aukeren gaineko informazioa ematen ere hasi dira.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

MATRIKULA ZABALIK

MAIATZAREN 16tik 27ra

www.jazpiazumusikaeskola.com

web orrian

2 urterekin hasi eta adin mugarik gabe



Informazio gehiago:

idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com

edo 943 78 31 74 telefonoan



Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Mekanizazioa
- Mantentze-lan Elektromekanikoak
- Natura Inguruneko eta Astialdiko Gidaritza

Oinarrizko Lanbide Heziketa

- Administrazio Zerbitzuetako Oinarrizko Profesionala



ATEAK ZABALIK

MAIATZAK 10, 18:00 (Asteartea)

MAIATZAK 14, 11:00 (Larunbata)

Aurretik hitzordua hartu behar da

AURREMATRIKULA

Maiatzak 9 - 27

INFORMAZIO GEHIAGO

943 899 300
info@onati.net
www.onati.net





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Karmen Ituarte Elorza

Jerardo Elortza

Larogiteasei urterekin fan da Karmen. Lume-umetatik oso hurrekua izan neben, familixakua zan-eta. Baiña horretatik aparte, gure lanetarako informaziño-itturri inportantia suertau xaku urte askuan. Manolo Urzelai senarrarekin batera parte zuzena euki eben Oñatiko ikastoliaren sorreran 1960ko hamarkadiaren akabera aldera; herriko musikamundua be bertatik bertara ezagutu eben: **Oñati** korala, **Irrintzi** zortzikotia, eta abar luzia. Orduko barri ugari emun oskun, eskatu ahala, aldizkari honetako hainbat artikulutarako. Zer esanik ez, **Gerrako garrak Oñatin** liburua talde batek alkarlanian moldau gebenian, eskuratu oskun xehetasun eta argibidiak. Izan be, anai-arteke gatazka zittal harek, beste askori letxe, sakon eragin otsan Barrenzelai familixako emakume honi. Milla esker, Karmen, zure laguntzaiaiatik!

••• AZKEN ORDUKOAK •••

Geologia altxorak ikusgai

Gure ondare geologikoa ezagutzeko irteera bereziak egingo dira maiatzean: **'Oñati Geomonumentala'** (maiatzak 14 /12:00); **'Bizipottoka Geoazkorrin'** (maiatzak 14 / 16:00); **'Espeleotxiki'** (maiatzak 14 / 10:30); **'Espeleoarrikruz'** (maiatzak 15 / 10:30). Irteerak dohainik dira. Erreserbak: 943796463.

Pentsiodunak Gasteizera

Oñatiko jubilatua eta pentsiodunek autobusa antolatu dute maiatzaren 12an Gasteizko legebiltzarrean egingo den elkarretaratzerara joateko. Maiatzaren 10a baino lehen eman behar da izena.

Guraso Eskola - Hitzaldia

Guraso Eskolak aurtengo ikasturterako antolatu duen azken hitzaldia: 'Autolesioaren eta suizidioaren prebentzioa gazte eta nerabeengan'. Maiatzaren 16an, 18:15 (online, gaztele-raz). Izena emateko: ainhua@onati.eus.

Zenbaki sarituak

Olabartako jaiak: **1. saria:** 1251 (ordezkoa 2695); **2. saria:** 2250 (ordezkoa1160)

Pentsioen erosteko ahalmenari eusteko SINADURA BILKETA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, Espainiako beste erkidego batzuetako pentsiodunen erakundeekin batera, sinadura bilketa jarri du abian pentsio publikoen erosahalmenaren alde. Batutako sinadurak Diputatuen Kongresura eramango dituzte, eta beharrezkoak diren legegintza-urratsak ematea eskatuko diete kongresuko kide guztiei.

ESKATZEN DENA

- 2022rako eta hurrengo urteetarako pentsioen **erosteko ahalmen bermatzea**, KPI errearen igoeraren arabera (urteko KPI metatua), 2011ko erreformaren aurretik egiten zen bezala, eta 2021ean pentsioen erosteko ahalmenaren **%3ko galera** konpentsatzea.
- **Pobrezia-atalasetik** beherako pentsiorik ez egotea bermatzea, soldatetan eta pentsioetan dagoen **genero-arrakala** ezabatuz eta **gutxieneko pentsioa** handituz LGSrekin (Lanbide arteko gutxieneko soldata) parekatu arte, eta bataz besteko soldataren %60an kokatzea, Europako Gutun Sozialak gomendatzen duen bezala.
- Pentsio publiko **duinak, bidezkoak** eta **nahikoak** bermatzea, baita Pentsio Sistemaren **izaera publikoa** bermatzea ere, 2011, 2013 eta 2021eko erreformen murrizketak indargabetuz eta sistemaren **privatizazioa baztertuz**, bai osoa, bai partziala, edozein formula erabililita ere.

SINADURA BILKETA OÑATIN:

Maiatzaren 7, 14 eta 21ean egingo da sinadura bilketa Oñatin, **Foruen plazan** eta **Olakuako patotan, 12:00-14:00.**



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Gure ekintzen berri emango duen atala...

ASTE SANTUTAKO OPORRAK

Udaberriarekin batera, apirilean, Aste Santutako oporrak etorri ziren eta zela disfrutatu ditugun. Ludoteka, Kubo eta Topalekukoek hainbat irteera eta ekintza berezi antolatu genituen eta oso ondo pasatu genuen!



AGENDA 2022.05.6 Auzoko Jaixen Ongi Etorrixa. | 2022.05.7 Ludoteka ibiltaria San Miel Txikittan | 2022.05.7 Aitxorraren Bila Kuboan. | 2022.05.13 Kontzertua Deskontrol + Lehen lerroa + Knock Out 21:30etan, sarrera 12€. | 2022.05.14 Zeramika tailerra. | 2022.05.14-15 Pasaiaiko Gaztelekukoekin elkartrukea. | 2022.05.20 Ludotekako Ortuan inaugurazio jaia. | 2022.05.28 Bertso Paper Lehiaketaren Sari banaketa.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI





Atletismo saileko zuzendari, entrenatzaile eta korrikalariak, babeslearekin

GAURKO ETA BIHARKO ATLETAK

Urrutxuko pista hurbilago egon daitekeela ikusita, ilusio-berrituta dihardute Aloña Mendiko atletismo sailean harrobia lantzen

Martxoko osoko bilkuran jakin genuen udal gobernu taldeak mahai gainean daukela Urrutxun atletismo pista bat egokitzeko aurreproiektua. Oraindik ezin da epeei buruz hitz egin, aurrez Urrutxun egin beharreko zigilatze lanen kostuaren, epeen eta atletismo pistaren beraren aurrekontuaren arabera izango baita.

Udalak enkargatuta dauka jada Urrutxuko zigilatze lanen exekuzio proiektua, eta laster egingo du gauza bera atletismo pistarekin. Eta exekuzio proiektu horien arabera erabakiko du udalak zer eta zein epetan egin ahal izango den.

Edozein modutan, badirudi bidea egiten hasi dela Urru-

txun atletismo pista egokitzeko egitasmoa, eta horrek ilusioa eragin du Aloña Mendiko atletismo sailean, Juan Carlos Ugarte presidentek adierazi digun moduan. "Bai, Udalak aurkeztu digu aurreproiektua, eta gustatu zaigu

» Urrutxun 400 metroko eta 4 kaleko tartanezko atletismo pista bat egokitzeko aurreproiektua mahai gainean dauka Udalak

ikusi duguna, 400 metroko eta 4 kaleko tartanezko pista egokitzea aurreikusten baita".

Eraztunaren kanpoaldean korrika egiteko beste gune bat egokituko litzateke, pistaren egiten diren entrenamendu saioak eten barik korrika egin

ahal izateko, nor bere errit-mora, eta pistaren barrualdean geratzen den gunean beste kirol batzuetarako ekipamendua egokitzeko asmoa du Udalak, baina definitzeki daude oraindik.

Ziurrenera, fase ezberdi-

netan burutuko da proiektua, aurrekontuaren arabera, eta atletismo pistari lehentasuna emanez, beti ere.

Aloña Mendiko atletismo sailean ezinbestekoa ikusten dute halako instalazio bat, sailari benetako bultzada eman

ahal izateko. "Ez dugu eskatzen zortzi kaleko pista ofizial bat lehiaketak egiteko, halako bat Arrasaten baitago, baina bai 400 metroko eta lau bat kaleko pista bat, prestaketa saio tekniko eta espezifikoa- goak egin ahal izateko eta kualitatiboki jauzi bat eman ahal izateko, konpetiziora begira", dio Ugartek.

Gaur egun Aloña Mendiko atleta federatuek Arrasate eta Zumarragako pistetara joan behar izaten dute entrenamendu saio teknikoak egitera, eta urtean 1.000 €-ko dirulaguntza ematen die Udalak, bi-daiak ordaintzen laguntzeko.

50 ATLETA

Atletismo pista iritsi bitartean,

Oñabike

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



Apirilaren 10ean San Martinen jokatu ziren eskolarte mailako proben irudiak. Goian Alebin mailako korrikalariak eta ezkerrean Infantil mailakoak.

Aloña Mendik lanean jarraitzen du, ahal duen moduan, gazteen artean atletismoa sustatzen. Aurten 50 bat korrikalari dituzte klubean, 20 federatuak (Kadete mailatik gorakoak) eta gainerakoak eskolarte mailako neska-mutikoak, Urrats Podologia Zentroaren babesarekin. "Urtetxo batzuk daramatza Urratsek gurekin, eta esker-rak eman nahi dizkiogu", dio Ugartek.

Denboraldiaren lehen erdia osatu dute. Kroseko eta pista estaliko probetan lehiatu dira, eta emaitzei dagokienez, Marisol Ramos nekazinararen lorpenak azpimarratu behar dira, Europa eta Espainiako kros txapelketak irabazi baititu, besteak beste, 60 urtetik gorakoen mailan.

Mikel Ruiz, Martin Uriarte eta Alain Enciso ere nabarmendu dira proba ezberdi-

netan.

Gaztetxoei dagokienez, kopurua da, beharbada, aipagarriena. "Egia esan, gero eta neska-mutiko gehiago ditugu eta oso gustura gaude", dio presidente karguan 15 urte daramatzen Ugartek. "Zorionez, entrenatzaile lanak egiteko jendea badaukagu (Peio, Malen, Beñat...) eta hori oso inportantea da jarraipena egon dadin gaztetxoekin. Gero, Infantil mailatik aurrera zaila izaten da gazte horiei eustea, Oñatin kirol aukera zabala dagoelako, atletismoa kirol gogorra eta zorrotza delako, eta behar bezalako instalaziorik ez dugulako. Duela 35 bat urte hasi ginen gaztetxoekin lanean, eta pozgarria da ikustea herriaren zenbat jende dabilen korrika. Pentsatzen dut zerkusiren bat izango duela gure lanak". ■

MENDI LASTERKETAK

Becerra eta Osa garaile Aloñako Igoeran



Walter Becerra (2:06:55) eta Malen Osa (2:33:09) nagusitu dira XVII. Aloñako Igoeran. Venezuelen sortutako korrikalari sestaoarrak marka jarri du, Oñatiko mendi lasterketan lortzen duen 6. garaipena baita. Orain arte 5na zituzten berak eta Ionut Zincak. Eta Malen Osari buruz zer esan? Astebete lehenago Lugon junior mailako Espainiako txapelketa irabazi ostean, etxekoen aurrean erakutsi du berriz ere bere maila garaipen berri batekin. Bitik bi. Udan Andorran jokatu den munduko txapelketa du orain begiz jota Osak. Gizonezkoetan Xabi Lete (2:11:20) izan zen oñatiar azkarrena, (6.).

MENDI IRTEERA

Beriain mendira, Aloña Mendirekin

Aloña Mendik maiatzerako antolatu duen irteera Beriain-San Donato (1493m.) mendira izango da. Unanutik abiatuta, Etxarri gaineko Iurbain tontorrera heldu eta handik joko dute gailurrera. Jaitsiera, aldez, Senosiain aldera egingo dute (Olloko harana) Euskal Herriko zentro geografikotik pasa ondoren. Denera, 19km. eta +900m, 6-7 ordutan egitekoa. Zailtasunik gabe. Irteera **maiatzaren 15ean** izango da. Izena emateko azken eguna, maiatzak 12, Aloña Mendi tabernan.

PILOTA

Oñati-Azmezketa, Herriartekoan

Oñatiko pilotariek Amezketaoekin neurtu beharko dituzte indarrak Herriarteko Pilota Txapelketako final 1/8-etan. Maiatzaren 15ean jokatuko dira joaneko partiduak Amezketa, eta 22an itzulerakoak Oñatin.

DUATLOIA

Euskadiko txapelketako podiumean

Azkoitian jokatuako Euskadiko distantzia motzeko duatloia txapelketan bigarren sailkatu zen Miren Josune Bikuña (lehenengo V2 mailan). Olatz Korkostegi Aloña Mendiko ordezkaria azkarrena izan zen beteranoen V1 mailan, eta Joseba Azkarate bigarren sailkatu zen proba egokitan.

IGERIKETA

Ane Madina Espainiako txapelketan

Torremolinosen jokatuako Espainiako txapelketan parte hartu du Ane Madina Aloña Mendiko igerilariak, 100 Bizkar (1:08:05) eta 50 Bizkarrean (00:31:15).

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA**ITURRITXO
TXAPELDUN**

Penaltietan hartu zuen mendean **Mazedonia**. Kopan **Albok** nagusi.

Apirilaren 23an jokatu zen Herriko Futbol Txapelketako azken jardunaldia, eta final nagusian **Iturritxo** taldea nagusitu zen **Mazedonia** azken txapelkunaren aurka, penalti jaurtiketetan (5-4), partidua hutsean berdindu ostean. Liga erregularrean ere **Iturritxo** izan da talderik onena. Finaleko jokalaririk onenaren saria Juan Pablo Pinedak (Iturritxo) jaso zuen.

Kopako finalean **Albok** nagusitu zen **Tutelatrakuren** aurka, Julen Aranburuk eta Mikel Aginagaldek sartutako golei esker. Aranburuk (Albok) jaso zuen jokalaririk onenaren saria. Joseba 'Moli'k ere aitortza jaso zuen epaile gisa egindako lana guztiagatik.

ESKERTZA

HFT-ko batzordeak eskerrak eman nahi dizkie txapelketa babestu duten enpresa eta erakundeek: Oñatiko Udala, Aloña Mendi K. E., Oñati Irratia, Goiena, DV, Aranburu bitxitegia, Astore, Urrutxi banatzailea, Gereta, Lizarralde kirolak, Caravanas Oñate, Mendizabal kirolak, Alzu, Boga, Iturritxo, Izarraitz, Ongi, Aker, Bizipoz, Pako, Ikatz eta Iturri tabenak.



Goitik behera, Iturritxo, Mazedonia, Albok eta Tutelatrakuru



Roberto Idigoras (Mazedonia) atezain onenar, eta Chafiy Reda (Iturritxo) golegile onenaren 'BERE' saria



LURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



25 URTE OÑATIN NUTRIZIO AHOLKULARI ZERBITZUAK ESKAINTZEN

«Elikadura egoki eta kontziente batek gorputza orekatu dezake»



Amaia Diaz de Monasterioguren dietista nutrizionista.

25 urte pasa dira Amaia Diaz de Monasterioguren Osinaga Oñatin nutrizio aholkulari moduan lanean hasi zenetik. Orduetik, elikadura ardatz izanik, naturak, emozioek, ohiturek... gorpuztean eta osasunean duten eragina aztertzen eta partekatzen dihardu.

25 urte, azkar esaten da. Abentura bat izaten ari da ibilbide hau. Aprobetxatuz, ikasiz eta ilusioz eman dituzten pauso guztiak. Beti helburu berdinarekin: osasuntsu egoteko, elikadura giltzarri oso garrantzitsua dela sinestuta.

Zein da bada, elikadura egoki baten sekretua?

Sekretua abiapuntuan dago. Elikadura egoki bat, dieta, kategoria, debekua eta araua baino gehiago dela ulertu behar dugu. Pertsona guztiak ezberdinak gara eta beharrak

ere bai; fisikoak eta emozionalak. Elikadurak osatu egiten gaitu. Gure inguruak osasun ohituretan duen eraginaz jabetu beharra daukagu.

Kontzientzia sortzeko beharra dagoela uste al duzu?

Bai. Eta horretan dihardut azken urteetan. Udal eta enpresa ezberdinekin, eskola eta ikastolekin...lan honekin gozatu egiten dut. Osasuna eta norbere zaintzaren garrantzia balioan jartzea ezinbestekoa dela iruditzen zait.

Hori horrela, ongizatearen

eta osasunaren inguruan beste profesionalen (psikologo, kirol prestatzaile, osasun profesionalak) laguntzaz, lanketa ezberdinetan dihardut etorkizuneko herri osasuntsuak sortzeko.

Nutrizio coach-a zara beraz.

Bai, formakuntza hori ere badaukat. Baina nutrizioan eta ongizatean bidelagun naizela, esatea gustatzen zait. Laguntza eskaintzen eta gida lanak eginez sostengu bat eskaintzen diot bezeroari. Baina helburuak, lanketa egi-

tera datorrenak jartzen ditu. Gehiengoak ohitura aldaketa osasuntsuak eta egonkorak lortu nahi ditu.

Zer eskaini nahi diezu oñatirrei?

Diziplina anitzeko zerbitzuak eskaintzen ditut. Nutrizioa eta elikaduraz gain, psikologia eta beste terapia batzuen zerbitzua ere eskaintzen diet bezeroei.

Nutrizio eta elikadura aholkularitza zerbitzuetan, pertsonak, talde eta enprekin egiten dut lan. Ikastaroak, kontsulta dietetikoa, coaching nutrizionala, elikadura kontziente eta elikadura emozional lantzeko tresnak erabiliz.

Helburua osasun fisiko eta mentala elikaduraren bitartez berreskuratu, zaindu eta mantentzea litzateke.

Nola egiten duzu lan?

Bi aukera ditugu. Bakarkako kontsultan edo taldekoan (familia, bikotea, bizilagunak...)

Orain gainera, bono eta pack desberdinak izango dituzue eskura: osasuna eta zaintza pertsonalerako bideratuak batzuk eta kontsumo jasangarri eta osasuntsura zuzendutakoak besteak. 45 minutuko saio teoriko-praktikoak dira, bakoitzaren errealitate egokituak.

Mezu edo gomendiorik bai amaitzeko?

Elikadura, nutrizio eta kontsumo kontzienteaz ari natzai zue. Baina galdera sinpleago bat egingo dizuet: nork ez du izan bere bizitzan zehar elikadura behar berezirik?

Gorputzak uneoro seinaleak bidaltzen dizkigu eta horiei jaramon egin beharko genieke. Bizitzako egoera eta etapa bakoitzean behar desberdinak ditugula agerikoa da. Gorputzak eta emozioak aldatu egiten baitira. Eta oreka hori, elikadura egoki eta kontziente baten bitartez lortu daitekeela iruditzen zait.

Amaia Diaz de Monasterioguren
DIETISTA- NUTRIZIONISTA
NUTRIZIOA AHOLKULARIA
ONGIZATEAN BIDELAGUN

651-701741
943-716548
kale zaharra 5 - beheko Oñati
20560
ONLINE eta PRESENTZIAL
info@amaianutrizioa.com
amaiadietista



BASAJAUN



HERENSUGEA



GALTZAGORRI



JENTILA



MARI

Bertsoak, marrazkiak, musika eta bideoa, haurrei euskal mitologia ezagutzera emateko

'Geure Mitologia' liburua plazaratu du **Urko Egaña**k, **Leire Derteano** ilustratzailea eta **Potx eta Lotx** pailazoekin elkarlanean

Haur txikiei euskal mitologiako pertsonaiak ezagutzera emateko **Geure mitologia. Potx eta Lotxen ibilerak** liburua plazaratu du Urko Egaña, Leire Derteanorekin ilustrazioekin. Egaña idatzitako kopla sorta bat dago liburuaren oinarrian, eta Derteanoren irudi ederrez lagundurik gure mitologiako hamar pertsonai aurkezten zaizkigu: Tartalo, Traganarru, Sugaar, Mari, Herensugea, Jentila, Basajaun, Galtzagorri, Herensugea eta Lamia.

Baina irakurri ez ezik, entzun ere egin daiteke liburua, bertan azaltzen diren QRak baliatuz, bertsoak musikatuta entzun edota bideo formatuan ikusteko aukera ere eskaintzen baitu, eta keinu-hizkuntzan jarraitzeko aukera ere badago, Arantxa Martin oñatiarraren eskutik. Josu Zubia 'Potx' arduratu da koplei musika jartzeaz, Arantzazu Jauregiatzo (akordeoia), Olatz Amozarrain (flauta eta piccolo) eta Oriol Floresen (bateria) laguntzarekin.

Apirilaren 6an aurkeztu zuten lana Ataungo herri antzokian, bertako Jentil Baratza kultur elkarteko kideekin batera prestatu ikuskizun batekin, eta www.potxetalotx.eus atarian, Elkar dendetan eta herriko liburu dendetan ere eskura daiteke liburua (15€).



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak


Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

'Jokoa ez da errenta' esaera aski ezaguna da Euskal Herrian, baina, egiari zor, apustuak eta jokoa oso errotuta egon izan dira beti gure gizartean, Jose Antonio Azpiazu historialariak *Juegos y apuestas en la historia de Euskal Herria* (2018) liburuan azaldu zigun moduan.

Orain liburu berria plazaratu du Azpiazuk, oraingo honetan karta-jokoen inguruan, eta bertan ikus daitekeenez, XVI, XVII eta XVIII. gizaldietan oso hedatua egon zen zaletasun hau Euskal Herri osoan.

Ohi duen moduan, artxiboetan aurkitutako dozenaka dokumentu oinarritzen du bere tesia, eta argi ikusten da gizarte-klase guztietan zegoela hedatua karta-jokoa aritzeko ohitura eta grina. Garaian garaiko ostatuetan eta etxe partikularretan antolatzen ziren karta-jokoak, eta, askotan, borroka, liskar eta auzi ugari izaten ziren, inoiz heriotza eragiteraino. Bilbon 1790ean jazo zen hilketa bat luze eta zabal dokumentatu du Azpiazuk.

Garaian garaiko agintariak saiatzzen ziren karta-jokoari mugak jartzen, baina askotan ezikusiarena egiten zuten, maila sozial altuko jendea egoten baitzen tartean, baita Elizako ordezkariak ere. Oñatiko unibertsitateko ikasleen artean sortutako liskarrak ere dokumentatu ditu Azpiazuk.



Karta jokoa XVI, XVII eta XVIII. mendeetako euskal gizartean eragin zituen liskarrak, auziak eta heriotzak aztertu ditu Jose Antonio Azpiazuk

Los naipes en Euskal Herria liburuak plazaratu du. Kapitulu berezia eskaini dio Bilbon tiroz hil zuten italiar jokozalearen kasuari



Espainiako Kritikaren Saria jaso du Itziar Ugarterek

Itziar Ugarteren *Gu gabe ere* poema liburuak Espainiako Kritika Literarioaren saria jaso du, euskarazko poesiarren atalean. Narratibako saria Kirmen Uriberen *Izurdeen aurreko bizitza* eleberriak jaso du.

Gogoratu, Ugarteren lehen liburua dela *Gu gabe ere*, eta dena irabazteko izan eta dena galtzeko beldurra sentitzen hasten garen uneaz mintzo dela.

EKAINEAN OÑATIN

Udal liburutegitik aurreratu digutenez, **ekainaren 10ean** Oñatin eskainiko du Ugarterek Mikele Landarekin prestatu duen poesia errezitaldia.

Lan bide
HEZIKETA

ai arizmendi ikastola **pro** LEHIAKETA

Osasun larrialdiak
IRDI MALAKO HEZIKETA ZIKLOA

Mikroinformatika sistemak eta sareak
IRDI MALAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizaintzako zaintza osagarriak
IRDI MALAKO HEZIKETA ZIKLOA

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza
IRDI MALAKO HEZIKETA ZIKLOA

Aurrematrikulazio epea zabalik

Izena eman
943 77 20 25

Maiatzak 9tik 27ra



MATRIKULA EPEA ZABALIK

Maiatzaren 16tik 27ra irekiko da 2022/2023 ikasturterako matrikula epea Jose de Azpiazu musika eskolan.

Musika goiztiarra: 2-3 urteko haurrekin hasten dira musika lantzen

Lengoaia musikala: 4-6 urtetik aurrera hasten dira lengoaia musikalaren oinarriak lantzen, modu ludikoan. Musika tresna ezberdinak probatzen dituzte.

Instrumentua: 8-9 urtetik aurrera instrumentua ikasten hasten dira, lengoaia musikala lantzearekin batera, eta 11-12 urtetik aurrera taldeko saioak egiten dituzte.

Gaur egun 19 instrumentu ikasteko aukera dago Oñatiko musika eskolan.

LUXENBURGORA

Musika Eskolako triki-pandero taldeak **Europako Gazteen Musika Jaialdian** parte hartuko du maiatzaren 26tik 28ra

Jose de Azpiazu musika eskolako kideak oso bidaiari dabilta aspalditxoan. Apirilean Cambrilsen (Tarragona) egon ziren asteburu pasa, kontzertuak eta aisialdia tartekatuz, eta orain Luxenburgora joango dira, maiatzaren 26tik 28ra ospatuko den Europako Gazteen Musika Jaialdian parte hartuz.

Bizpahiru urtean behin egiten den jaialdia da hau. Aurretik, Italian (2012), Donostian (2016) eta Herberheetan (2018) ospatu izan da, Oñatiko ordezkariarekin beti ere, eta aurten ere hantxe izango dira Jose de Apiazu musika eskolako kideak.

Pandemia dela eta, parte-hartzea mugatzea erabaki dute



aurten, eta Oñatitik triki-pandero taldeko 10 ikasle eta 3 irakasle joango dira Luxenburgora, 'Erro tradizional'-eko talde bezala. Trikitixak eta panderoak Euskal Herrian izan duten tradizioa eta eboluzioa erakusten saiatuko dira, lehengo eta gaur egungo doinuen bidez. Trikitixa eta

panderoaz gain, peñaparda eta bonbeta ere eramango dituzte.

Oñatikoekin batera, Bergara (euskal kanta), Errenteria (dantza), Bilbo (hari taldea), Donosti (Big band) eta Hernaniko (Konbo) musika eskoletako ordezkariak ere izango dira Luxenburgon, ehun lagun guztira. ■

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



Hots Abesbatzak bi sari lortu ditu Ejea de los Caballeros-eko sariketan

Aitor Biainek zuzentzen duen **Hots Abesbatzak** bi sari eskuratu zituen apirilaren 23-24an Ejea de los Caballeros-en (Zaragoza) jokatu zen abesbatzen 49. lehiaketan. Estatu mailako hamabi talde lehiatu ziren, bi kategoriatan, eta helduen mailan 3. saria (garaikurra eta 1.000€) lortu zuten oñatiarrek, eta baita entzuleen saria ere (garaikurra eta 1.000€). 2016ko urte amaieran sortu zen **Hots Abesbatza**ren aurreneko lehiaketa izan da Ejeakoa, eta oso pozik itzuli dira egindako lanarekin eta jasotako sariekin.

Des-kontrol taldearen 25. urteurreneko birako kontzertua Oñatin

MAIATZAK 13 • GAZTELEKUA • 21:00




Punk kontzertu ederraz gozatzeko aukera egongo da maiatzaren 13an, Gaztelekuan. Ikatz tabernak antolatutako kontzertua da, udazkenean hasi eta maiatzera arte tabernan antolatu duen kontzertu zikloari amaiera borobila emateko. Taberna txiki geratuko zela aurreikusita, Gaztelekuan antolatzea erabaki dute.

Hiru talde ariko dira bertan, **Des-kontrol** arrasatearra kartel-buru delarik. Urte batzuetan ixilik egon ostean, beraien 25. urteurrena ospatzeko antolatu duten biraren bigarren kontzertua izango da, Herri Urratsekoaren ondoren. Kartela osatuz, **Lehen Lerroa** oñatiarrak eta **Knockout** punk talde madrildarra ariko dira. Sarrerak (12€) Ikatz tabernan.

Bost film labur batean

'Geuretik sortuak' proiektuaren baitan ekoiztutako **'Bost teilatu'** lan kolektiboa ikusgai Oñatin



Udalbiltza 'Geuretik Sortuak' proiektuaren baitan ekoiztutako **Bost teilatu** filma ikusi ahal izango dugu maiatzaren 12an, kultur etxean, 19:00etan (sarrera doan).

Bost film labur biltzen dituen lan kolektiboa da: Nork bere etxean **Krak** egin duten Ane eta Mirenen dolua; Ekaitz gazteak eta Inaxio edadetuak baserrian bizi duten katarsiak emandako **Arnasa**; Michellek jaioterrira itzultzean deskubrituko dituen **Hitzak** eta bere nortasunaren inguruko galderak; paketea dagokion teilatupera eramateko **Erlojupekoa** lehiatzen duen mezularia eta, azkenik, **Muga** inguruan bere buruaren babesteko ihesi doan Kamaru gazte afrikarra.

Amaieran zuzendarietako batekin (Leire Egaña) solas egiteko aukera egongo da

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 * amaiigartua@gmail.com

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



KONTZERTUAK

MAIATZAK 13 / 19:00

HIRU HANDIAK

Oñatin sortutako taldeak bere lehen kontzertua eskainiko du [Gaztetxean](#).

MAIATZAK 13 / 21:00

DES-KONTROL + LEHEN LERROA + KNOCKOUT

Arrasate, Oñati eta Madrilgo punk-rock taldeen kontzertua, Ikatz tabernak antolatuta. Sarrera, 12€ [Gaztelekuan](#).

MAIATZAK 14 / 19:00

DONOSTIAKO ORFEOIA

Orfeoia 125. urteurreneko ezohiko kontzertua [Arantzazuko Basilikan](#).

MAIATZAK 27 / 21:00

MOTZ + PLAN B

Oñati eta Donostiako rock taldeen kontzertua [Ikatz tabernan](#).

MAIATZAK 27 /

RAPERU + ODEI

Peru del Hoyo 'Raperu' (Galdakao) eta Odei Barroso 'Odei' (Barakaldo) raperoen kontzertua. [Gaztetxean](#).

PAILAZOAK

MAIATZAK 7 / 17:00

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Txantxiku Ikastolaren egunaren harira. Sarrerak (9€) ikastolako idazkaritzan eta Txokolateixan (2 urte arreko haurrak dohainik). [Zubikoa kiroldegian](#)

HITZALDI-SOLASALDIAK

MAIATZAK 9 / 17:30

PERRETXIKOAK

Bittor Altube eta Jabier Galarzaren hitzaldia. [Pake Lekun](#).

MAIATZAK 13 / 18:00

URGAIN EGUNA

Maiatzak 14

Urgain Eskolaren eguna ospatuko dute maiatzaren 14an



EGITARAUA: 9:00

Muntaia auzolanean, Zuazola institutuko plazan (Irunberri plaza); **10:00** Gosari herrikoia; **10:45** Pregoia, gonbidatu bereziekin; **11:00** Kalejira musikatua; **13:00** Ekitaldia eta Lib Dub erraldoia, Urgeineko bideoklipa abestua, herriko plazan; **14:00** Bazkaria (txikitxoentzako gune lasaia egongo da); **15:30** Antzerkia areto nagusian; **16:00** Guztientzako tailerrak (Txatxilipurdiren eskutik): zirku tailerra, sormen txokoa, natur elementuekin jolasean...; **17:30** Apar festa eta bizkotxo jana; **18:00** Argazki erraldoia; **18:30** Kontzertuak; 20:30 Amaiera.

LODIFOBIA

Emakumeen Jabetze Eskolak antolatuta. Hizlaria: Mijo Lizarburu. [Kultur etxean](#).

ZINEA

MAIATZAK 11 / 19:00

'URAK ASKE' DOKUMENTALA

II. Gnat Zimena erakustaldiaren baitan 'Urak aske' doku-mentala [Kultur etxean](#).

MAIATZAK 12 / 19:00

'BOST TEILATU'

Udalbiltzaren 'Geuretik Sortuak' proiektuaren baitan ekizitako filma. Bost film labur biltzen dituen lan kolektiboa. Amaieran, zuzendarietako batekin (Leire Egaña) solasaldia. Sarrera, doan [Kultur etxean](#).

MAIATZAK 18 / 19:00

'JOURNEY TO UTOPIA'

II. Gnat Zimena erakustaldiaren baitan, 'Journey to Utopia' dokumentala [Kultur etxean](#).

JIALDIAK

MAIATZAK 14

JIALDIA GAZTETXEAN

Durangon egingo diren jardunaldietarako dirua lortzeko jialdia. Erromeria egongo da aurrena, eta DJ-ak ondoren.

TAILERRAK

MAIATZAK 18 /

ZIZELKATZE TAILERRA

Gaztetxeko atarian jarriko den taila lana denon artean landuko da, tailagile adituek gidatuta [Gaztetxean](#).

AUZOETAKO JAIK

MAIATZAK 6 - 8

SANMIGEL TXIKI

MAIATZAK 20 - 22

ERREKALDEKO JAIKAK

IRTEERAK-BIDAIAK

MAIATZAK 12 / 11:00

OÑATI EZAGUTZEN - PARROKIA

Mikel Goiaingeruaren parrokia: kripta, Zuazolaren aldea, kanpandorra... ezagutzeko aukera.

MAIATZAK 26 / 11:00

OÑATI EZAGUTZEN - ARAOTZ

Araotzeko parrokia eta bertan egokitu duten ostatu berria ezagutzeko aukera.

MAIATZAK 30 - EKAINAK 3

MADRIL

Madrilera bidaia, Pake Lekun antolatuta.

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



LITERATUR SOLASALDIA

Martxoak 18 / Udal liburutegian, 18:30

Udalbiltzaren 'Geuretik Sortuak' proiektuaren baitan, hamasei idazlek kontakizun bana sortu dute herri ezberdinetan egindako egonaldietan bizitaketik. Euskal Herria kontatzea zen asmoa; ahots anitzek kontatua, lokaletik unibertsalera, tokian tokiko iragana, oiraina eta etorkizuna irudikatzea. Geuretik sortutako memoria eta historia. Idazle horietako bat izan da Peru Calabazada, eta berak sortu duen 'Xamurtasunaren historia Zaldibian' lanaz berba egitera etorriko da

IPUIN MUSIKATUA



4-5 urte arteko hurrei zuzendutako ipuin kontaketa egongo da maiatzaren 27an udal liburutegian, Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadoren eskutik. Bi saio egingo dira (17:30 eta 18:15). Izen-ematea, maiatzaren 16tik aurrera.



Hileko gomendioa

Kaleetan beren kasa hazten diren landareei ahotsa ematen zaie liburu honekin. Hormetako arrakaletan, parkeetan, espaloietan, edonon ikusten ditugu nahiz eta ez erreparatu. "Belar txarrak" deitzen diegu baina liburua irakurri ondoren iritziz aldatuko dugu.

ZINEA



Maiatzak 6-9

ZINE KLUBA:

- NAGUSIAK: **ALCARRÁS**

Berlingo zinemaldiko film onena

GAZTETXOAK: -



Maiatzak 20-23

ZINE KLUBA:

- NAGUSIAK: **MENTES MARAVILLOSAS**

GAZTETXOAK: -



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).

Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)

GAZTETXOAK: Larunbat eta Igandea (17:00)

Maiatzak 13-16

ZINE KLUBA:

- NAGUSIAK: **EL HOMBRE DEL NORTE**

GAZTETXOAK: -



Maiatzak 27-30

ZINE KLUBA:

- NAGUSIAK: **CINCO LOBITOS**

Mañlagako zinemaldiko film onena

GAZTETXOAK: -



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Maiatzak 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29.
Ekainak 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Maiatzak 11, 12, 20, 21, 22, 30 eta 31.
Ekainak 8 eta 9.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Maiatzak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 24.
Ekainak 1 eta 2.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Maiatzak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26.
Ekainak 3, 4 eta 5.



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA

Oñatiar familia batek etxebizitza (2 edo 3 logelakoa) alokatu edo erosi nahi du. 680 398 022

ETXEBIZITZA

Ukrainar emakumea, semearekin, etxebizitza alokatu nahi du. Lana badu eta erreferentziak ere bai. 676 168 661.

LOKALA ALOKAGAI

Patrua Kalen garaje edo almatzen bezala erabil daitekeen lokala alokagai. 695758526.

ETXEBIZITZA

Etxebizitza erosi nahi nuke Oñatiko erdigunean, 120m²-tik gorakoa. Deitu: 610 466 020.

ODOL ATERALDIA

MAIATZAK 20 / 16:30-20:30

Enpresagintza fakultatean. Txanda hartzeko deitu: 943 007 884

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserriko agia, egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



(*) Itten: arrastua, pistia

>> PASADIZUA

¿ Aquí, para ir a calle Toledo?



“Eta ni han egoten nintzen, e, San Migeletan zaldixori eruen-eta, Migel Usako ta tio Bittor lagun haundixak ziren, bata Ameriketara egon zan, hanka egindda hemendik, eta, bestia kartzelan, eta han bazkarriten gegontzela orduko kontuak buelta emun eta zerien, eta ni mutikuak, ba, entzun egitten nostien zertzuk esaten zittuain orduen. Eta gero zerera etorrirta, hemen komerziuen batak, eta bestiak be fabrikantia-edo zera, eta bestie-ta, Madrillera fan zirela egun baten entzunda dakot berari, zerari; eta Madrillen, e, preguntau xaue zeren bateri, aguazillen bateri:

- ¿Aquí, para ir a calle Toledo?
- Ahí tienen ustedes el metro...
- ¿El metro? El metro hemen xakuagu poltsikuan, baiña zeozer egitten xuagu honegaz?!


Alkarrizketia: Kepa Elortza

Pasarte osua entzun gura izan ezker, jo hona: <https://ahotsak.eus/aretxabaleta/pasarteak/are-036-004/>

>> BERBA KRUAZAUAK

Osotu tablia definiziñuen laguntzaiagaz, kontuan izanda berba danak -leku osagaixa izan bihar daueilla:

- | | |
|---|----------------------------------|
| 1. Txirikilletan egiteko lekua | 7. Eguzkixak urteten dauen lekua |
| 2. Komuna. Ipurdixa | 8. Kamioiak kargaitteko lekua |
| 3. Astuakin baserrira oiazeilla apartaitten ziran lekua | 9. Larratokixa |
| 4. Bolotan egiteko lekua | 10. Pausalekua |
| 5. Susaak dagozen tokixa | 11. Agertokixa. Taula. |
| 6. Buruhausteia | 12.- Ostatua. Pentsiñua |



Erantzunak: 1.- Txirikilletan (top.) 2.- Pausalekua 3.- Partilleta 4.- Bolalekua 5.- Susalekua 6.- Bielekua 7.- Argiletu (top.) 8.- Kargalekua 9.- Bazkalekua 10.- Egonlekua 11.- Jokalekua 12.- Lotekua

Ate Irekiak


Maiatzak 13, 17:00etan



0, 1 eta 2 urteko
haurrei zuzendutako
ekintzak

- Ipuin Kontaketa
- Aurpegi margoketa
- Globo festa
- Esperimentazioa

Matrikulazioa urte osoan zabalik

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIXIA**Goribar-Kasablankako San Ixidruak**

Goribar auzua klasikua da Oñatin. Kale Zaharraren akaberatik Irabiertzta errekaraiño ailegaitten da. Arboledako **Oialde baserri**ttik **Urbietta eta Kanpizelairaiño**. Dana dala, baserri-giroko auzo horretan kale antzeko gune luzetxo bat sortu zan XIX. gizaldixaren azken aldera, Kornelio Garai enpresa-gizon bedoñarrak jarri eben poxpolo-fabrikiaren aldamenian: **Kasablanka** izenez ezaguketan dogun etxe-illaria, jakiña.

Auzoko ermita nagusixena **Santa Kataliña** da, alturatxo batian daguea. Santa horren irudixa XX. mendiaren hasieran konponketara eruan eta ezkutau egin zan betiko. Baiña ermittiak beste santu bat be baeukan apopillo moduan: **San Ixidro atxurlarixa, baserri**ttarren patroia. Horregatik ospatu izan dira Goribar-Kasablankan maiatzaren 15 aldera auzoko jaixak. Hirurogei bat urte eukiko dittuan fotografia honetan auzoko gazterixia eta umeterixia agerketan da jai-giruan, **Bixente Lazkano soiñujole bergararraren** inguruan.

Erromerixiak jente asko karriaitten eben sasue batian, kaletik nahikua hurrian egitten zan-eta. Arbolediaren amaieran ifiñittako kiosko gaiñetik joten eben **soiñujoliak, jazban eta guzti** gehixenetan. **Pedro López** be urtero inguraketan zan bere goxoki-karro eta barkillo-potetzarrarekin. Dantzagurakuak arboleda-zati haundi bat eta alboko kamiñua beteten euen. **Jaixak bi egunetak**uak izaten ziran: maiatzaren 15ian eta 16xan. Eta Garainian ziharduain auzotarrak ez eukain egun horreittan lanera fan biharrik. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue auzotarrok:

Goiko illaran: **Juanito Egaña**, *Errotabarrikua*; **Begoña Zubia**, *Antzokua*; **Rosarito Azpiazu**, *Emeteriona*; **Begoña Altuna**, *Kantina*; **Arantxa Altube**, *Lorentxona*; **Kontxi Ugarte**, *txokolateruana*; **Rexu Egaña**, *Errotabarri*; **Mila Azpiazu**, *Emeteriona*; **Mari Tere Beitia**; **Txaro Zubia**, *Antzokua*; **Dorita Altube**, *Lorentxona*; **Xabin Aranburu**, *Santa Kataliñakua*; eta **Rita Tirapu**, Arrazolanian neskame eguana.

Bigarren illaran: **Xalbador Zubia**, *Antzokua*; **Maria Luisa Aranburu**, *Santa Kataliña*; **Pedro Aranburu**, *Santa Kataliña*; **Nieves Izurategi**, *Urbietakua*; **Manttoni Egaña**, *Errotabarri*; **X. X.**; **Aurora Azpiazu**, *Emeteriona*; **Ana Mari Markuleta**, *Tomas Basazabalena*; **Joxe Luis Markinez**; **Jesus Mari Markinez** (umia); **Xabin Telleria**, *Bakeruena*; eta **Joxe Luis Arregi**, *Kanpizelaikua*.

Hirugarren ilaran: Migel Lazkanoiturburu, *Lazkano*; Maria Jesus Kortabarria, *Ugartondokua*; Maria Anjeles Lizarralde; Jexux Txintxurreta, *Kanpizelai*; Patri Zubia, *Antzokua*; Patxi Aranburu, *Santa Kataliña*; Marixol Rodriguez, Bakeruenian apopillo eguana; Anjel Mari Zubia, *Antzokua*; Trini Lazkanoiturburu, *Lazkano*; Arantxa Kortabarria, *Ugartondo*; Blanka Legarda, Jose Luis Markinezen andria; Juan Karlos Kortabarria, *Ugartondo*; Maria Luisa Lazkanoiturburu, *Lazkano*; Pedro Lizarralde; eta Maria Luisa Zubia, *Antzokua*.

Laugarren ilaran: Mari Kruz Madariaga; Pakita Egaña, *Errotabarri*; Anjel Aranburu, *Santa Kataliña*; Juanito Biain, *Txoriña*; Axun Kortabarria, *Ugartondo*; Bixente Lazkano, Bergarako soiñujolia;

Bosgarren ilaran: Jesusita Egaña, *Errotabarri*; Joxe Ramon Lizarralde (umia); Xabier Aranburu, *Santa Kataliña*; Maixabel Lizarralde; Nieves Biain, *Txoriña*; Markos Lete, *Santa Kataliña*; horrein atzian, Juan Karlos Lazkanoiturburu, *Lazkano*; Edurne Aranburu, *Santa Kataliña*; Euxebio Lazkanoiturburu, *Lazkano*; Mikaela Untzilla, Jexux Mari Aranbururen andria; Jexux Mari Aranburu, *Santa Kataliña*; Joxe Antonio Altube, *Lorentxona*; Pakita Isasti, *debarra*; Joxe Mari Egaña, *Errotabarri*; eta Pilar Markuleta, *Tomas Basazabelena*.

Aurrekaldian lurrian jarritta: Juan Mari Alzelai, *Errotazarrena*; Migel Anjel Alzelai, aurrekuaren anaia; horrein atzian Manolo Fernandez, Bakeruenian apopillo; Esteban Telleria, *Bakero* (mutikua); Pedro Mari Altuna, *Kantina*; honen aurrian Iñaki Lete, Antzoko Elenaren semia; eta Anton Azpiazu, *Emeteriona* (mutikua).

Argazkixa, San Ixidotako beste asko letxe, Patxi Elorza erretratistia atara eben. Nieves Biainek bialdutakua da eta guri Jexux Mari Ugartek eskuratu dosku. Identifikaziño-lanetan Jexux Marik ez ezik, Anjel Abaunz, Iñaxio Aranburu, Anton Azpiazu eta Esteban Telleriak be jardun daue. Milla esker danoiri!

Jerardo Elortza 

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

GEROA EREIN



Oñati gestio heziketa

MGEP

MAGISTERIO DE GESTIÓN DE EMPRESAS
MAGISTERIO DE GESTIÓN DE EMPRESAS

IZEN-EMATEA

Maiatzak 9tik 27ra

Eskaintza akademikoa	
OÑATI Gestio Heziketa	MGEP
-Administrazioa eta Finantzak	-Automatizazioa eta Robotika Industriala
-Zuzendaritza Idazkaritza	-Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
-Salmenta Kudeaketa	-Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
	-Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
	-Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/agh
nlapezp@mandragon.edu
943 71 80 09


www.mondragon.edu/lanbideheziketa
onarpena.lhm@mandragon.edu
664 298 704 - 664 298 993







Altzari bat erosi eta zuk zeuk muntatu behar izatea okindegian masa saldu eta zuk zeuk etxean ogia egitea bezala da.



**Zerbitzu osoa
merezi duzu!**